

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: HILDE DE SMEDT •
BERTSO DOINUTEGIA INTERNETEN
ESKURAGARRI • KULTURA ETA HIZ-
KUNTZA ANIZTASUNA ESKOLAN •
BILBO ERREGIMEN ZAHARREAN



Bruselako Foyer zentroa


Etorkinak integratzeko ahaleaginean




Zu eta
ni...



...bi



elkar



Ezberdinak
gara...

...ZU eta ni



gaia

BRUSELAKO FOYER ZENTROA

34 daramatza Bruselako Foyer zentroak etorkinen integrazioaren alde lan egiten. Auzoan haurrekin, gazteekin eta enakumeekin lan egiteaz gain, Bruselako zazpi ikastetxetan proiektu bikulturalen ardura darama.



elkarrizketa

HILDE DE SMEDT

Foyerreko hezkuntza arloaren ardura darama eta etorkinen integrazioa lortzeko hezkuntzan giltzarri diren elementuak ezagutzen ditu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

BRUSELAKO FOYER ZENTROA
Etorkinak integratzeko ahaleginean

14 **elkarrizketa**
HILDE DE SMEDT

22 **teknologia berriak**
Bertso doinutegia Interneten
eskuragarri

24 **ekarpena**
Psikopedagogiako adituaren jarrera
etiko-ideologikoa, inoiz baino beha-
rezkoagoa hezkuntzaren Kalitate
Legearen aurrean
Bittori Insausti


28 **kultura eta hizkuntza aniztasuna
eskolan**
EOLE proiektua
Itziar Aramaio

38 **historiako zertzeladak**
Praktizismoa eta kultura.
Bigarren Hezkuntza Bilbon,
Erregimen Zaharraren amaieran
Txomin Ganborena

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Graf ik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ A.S.A.L. Azaleko irudia: Bruselako Sint Jan Berchmans ikastetxeko haurrak Foyerreko arduradunarekin eta espainiarako irakaslearekin (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/ III/17 . Kopurua: 3.500 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



e u s k a l d u n o n
Egunkaria

aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388

telefonoetara
telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu

Egunero

editoriala

apirila

Etengabeko ikaskuntza egungo gizartearen erronka



Komunikazioaren edota ezagutzaren gizarte honetan, denok gauzak eza-gutzeko dugun esku-bidea bermatzea egokia litzateke

Bilbon ospatu berri da Etengabeko ikaskuntzari buruzko I. Nazioarteko Biltzarra, eta horren haritik hainbat burutapen datorkizgu.

Beti esanda eragile ekonomikoek bideratzen dutela gizartearen ibilbidea; sortzen diren behar ekonomikoek erantzuteko antolatzen dela gainontzekoa. Eta ameskeria litzateke eskolak antolamendu horretatik ihes egiten duela ustea.

Garai batean, gutxi batzuek zuten irakurketa eta idazketa ezagutzeko aukera. Esklabu izateko edota jauntxo baten menpeko izateko ez baitzen irakurtzen jakin behar; nagusiei komeni ere ez, seguraski.

Geroago, lurrun-makina asmatu eta aro industrialak orokortzen hasi zenean, behar ekonomikoek beste langile mota bat interesatu zituzten: oharrak irakurtzen zekiena, planoak interpretatzen, bulegoko lanak egiten, ekonomiaz ulertzen zuena, legeak ezagutzen zituena... Eta eskola beharrezkoa

bihurtu zen hori guztia gauzatzeko.

Eskolatzea orokortuz joan zen eta bakoitzari ikasketa oso zehatzak eskatzen zitzaizkio, gero lantegian egingo zuenaren arabera. Horrela, pertsona bakoitzak bere bizitzan zehar hiru garai zituen: ikastekoa, lanekoa eta jubilazioa.

Gerora, teknologia berritzen joan zen heinean, eskolan ikasitakoa soilik ez da nahikoa izan, eta berrikuntzetara egokitzea ezinbestekoa bihurtu da. Horrela, lana egitearekin batera, egokitze ikasketak sortu dira. Eta azkenaldi honetan, berritzea etengabekoa bihurtzen ari da.

Teknologia berriekin, Internetekin batez ere, lan mundua izugarri aldatzen ari da. Eta lan mundua soilik ez. Nork ez du kuxakoa gestioaren bat egin kuxazainaren bidez? Nork ez du zinemarako edo antzerkirako sarreraren bat atera? Nork ez du ordenagailuan interesatzen zaion informazioa bilatu? Eta honetara-

ko, ez dago adinik. Ale honetan bertan ordenagailuaren aurrean ikusten dugu Joanito Dorronsoro bertso doinutegia Interneten nola sartu duten erakutsiz.

Denbora laburrean gertatzen ari diren aldaketak hain handiak izanik, erronka berria jarri zaio gizarte osoari. Etengabeko ikaskuntza premia bihurtu da. Eta gizartearen onurarako izatea espero dugu.

Interes ekonomikoengatik eskolatzea orokortu baldin bazen ere, denon eskolatzea ona dela deritzogu.

Etengabe ikasten aritzea ere, egokia delakoan gaude. Komunikazioaren edota ezagutzaren egungo gizartearen gure eskolek jokatu behar duten papeira ongi aztertzeak eta asmatzeak garrantzia du. Horretarako, eskola komunitatearen hausnarketa serioa eta sakona klabea da, elkartasuna eta ikuspegi kritikoa ardatz harturik. Norabide horrekin, gizartea hobetzeko eskolaren egin beharra zehazten joateko garaia da.

kronika

Lapurdiko Bidart herriko Lehen Mailako ikasleek argi kutsaduraren eta honen alferrikako erabilpenaren ondorioen inguruko "lege proiektu" bat aurkeztu dute Pirinio Atlantikoko Gazte Parlamentuko departamentuko seigarren deialdiaren ordezkari zapenerako. Parlamentu ganbara honetarako urtero Lehen Mailako ikasleek proposamenak luzatzen dituzte eta garaile ateratakoa lege bihurtzen da gero. Bidartekoek apiril arte itxaron beharko dute lehen hamarren artean dauden jakiteko; azken emaitza, berriz, maiatz bukaeran jakingo da. Dena dela, azken erabakia alde batera utzita, proiektu horren helburua Lehen Mailako ikasleei frantses estatuaren funtzionamendua modu praktikoa batean erakustea da. Daniel Poulouren bisita ere jaso dute eta beraien gatzetxo ordezkariak aukeratu ere bai: Laura Calén diputatua eta Yann Basunto ordezkari gisa. Ikasleen eskaera izarrak ikusten jarraitzeko eskubidea izatea da.



Nafarroan bi irakaskuntza eredu berri sortu dituzte: I eta J

Nafarroako Hezkuntza departamentua dekretu berri bat tramitatzen hasi da irakaskuntza eredu inguruan, non bi eredu berri jarriko litzatekeen aukeran erabat onartuz gero: I eta J, hain zuzen ere. I eredu gaztelania eta Europako komunitateko hizkuntza bat (normalean ingelesa) erabiiko litzateke, azken hau gutxienez %30ean. J eredu berriz, euskara irakasgai bezala izango dute eta gaztelania eta komunitateko hizkuntza bat gainerako gaietako. Honela, I eredu G bezalakoa izango litzake, baina %30eko ingelesarekin edo frantsesarekin; J, berriz, A eredu bezalakoa izango litzateke, baina atzerriko hizkuntzaren erabilpenarekin ikasgaiak erakusteko.

Helburua hizkuntza aniztasuna eta sare publikoa indartzea dira, baina aurreko dekretuaren eta "euskararen le-

gearen" ikuspuntutik (A, B, D eta G ereduak onartzen zituen), D eta B ereduak baztertuak jarraituko lukete, eta ingeles hiztunak gehituko lirake gune ez euskaldunetan. Irizpide honi jarraiki, adibidez, matematikak ingelesez irakatsiko lirake. Eskola Kontseiluaren eta sindikatuen esku dago orain proposamena onartzea edo ez, baina Hezkuntza departamentuan onartuko den itxuraz guztia du.

UPNren politika berriaren barneko iniziatiba da hau, euskara eta komunitateko hizkuntzak zaku berean sartze koarena; 2001ean dekretua aldatzeko asmorik ez baitzen agertu, orduko Hezkuntza kontseilari Jesús Lagunak adierazi zuenez.

Hizkuntzaren normalizazioaren ikuspuntutik izaera diskriminatzailea duela ezin uka daiteke. Izan ere, B eta D ereduak ez daude galeraziak, baina ez dira derrigorrezkoak ere. Honen adibide ditugu ikastola alegalak. Egia dena zera da: onurajotzen ez duen bakarra D eredu dela. Erribera erdigunean, adibidez, lehen A eredu soilik baldin bazuten, orain aukera zabalduko zaie dekretua onartuz gero, baina euskararen kaltetan.

"Euskararen legeak" ez du ereduez hitz egiten, Nafarroako hizkuntza gune ezberdinez baizik. Hori aldatu eta gutxienez euskarari ingelesari ematen zaion arreta adina eskainiko balitz...

Lizeoaren egitekoa ez da ez matematika-riak, ez literatuak, ez naturalistak, ez historialariak egitea, baizik eta izpirituak lantzea letren, historiaren, matematikaren bidez, eta abar.

Emile DURKHEIM



Partaidek 0-3 ziklorako ikastetxe guztien berdintasuna eskatu dio Hezkuntza Sailari

Ikastolen Elkartea-Partaidek 0-3 urteko haurren inguruan eskaera bat luzatu du, ikastetxe guztiek eskubide berdinak izan beharko lituzkeela adieraziz, lehendakari Koldo Tellitu eta Jose Luis Sukiaren eskutik.

Gizartearen nahi sozialari erantzun behar zaiola aipatu zuten, eta horretarako, publikoaren eta pribatuaren arteko lehia gainditzearen garrantziari buruz ere aritu ziren. Honekin batera kritika txiki batzuk egin zizkieten legebiltzarrek adin tarte honetarako onarturiko ez legezko proposamenari eta gaur egungo prozesuari. Beraien ustez, haur horientzat landu beharko lirateken ekimene artean hiru ezaugarri bereiztu zituzten. Batetik, heziketarako izateaz

gain, asistentzia zerbitzua eskaintzea modu malguan.

Bigarrenik, lehenagotik antolatuta dauden eragileak eta errealitatea errespetatu behar dela zioten, eta hortik erai-ki proiektu berria.

Azkenik, administraziora soilik mugatu gabeko proiektu bateratua (herri erakundeak, gizarte izaerakoak, pribatuak, ikastolak...) osatu dezan eskatu zioten Hezkuntza Sailari, alegia, eskola mapa ezberdinak onartuko dituen.

Kontuan hartu behar da Partaide- ren ikastoletan, 2003-2004ko matrikulazioak nabarmen gora egin duela oro- korrean. EAEn jaiotza kopurua %2,11 da, baina 2 eta 3 urteko haurren ikasto- letako matrikulazioa %3,78 igo da. Ara- ba izan da matrikulazio kopuruan be- herara egin duen bakarra (%3,55). Hala ere, lehengo urtean igoera %50ekoa izan zuela ezin da ahaztu.

Nafarroako 3 urteko haurren matri- kulazioa 5.248 haurrekoa izan da, ho- rietatik 3.174 ikastetxe publikoetan eta 2.074 pribatu- etan matrikulari direlarik.

Eredu- egi dagokienez %70ak A eta G eredu- etan eman du izena eta %29,36k D eta B eredu- etan. Zehazki, zentro pu- blikoetan D ereduaren matrikulazioa beste ereduena baino handiagoa izan da (%35,38), eta pribatu- etan, berriz, G gailentzen da (%66,39). Datu hauek le- hengo urtekoaren antzekoak dira, G ereduaren hazkuntza txiki batekin.

Egunkaria aurrera, Egunkaria au- rrera!!!... nonahi ikusi eta entzun du- gu azken hilabete- an, gizarte honek euskaraz informatua egoteko eskubi- dea eta nahiaren aldarrikapena garbi geratu delarik. Horien artean aipatze- koak dira martxoaren 13an eta on- dorengo lanuzteetan ikastetxeetan, unibertsitateetan, eta oro har, hez- kuntzaren alorrean egon diren pro- testaldiak eta Egunkariaren aldeko ahotsak.

Aurretik Urtxintxa Eskolak hau- rrekin egiteko joko proposamena lu- zatu zuen Internetez: Egunkariaren sokasalttoa, harrapaketa, txingoa, zapitxoa, izar jolasa...

Ikastoletako erantzuna, halaber, ez zen joko hutsean geratu. Egun ba- tez Egunkariako kazetari bihurtu eta ikastola bakoitzean egunkari kolore- tsuak eta irudimenez beteak argita- ratu zituzten, gero Martin Ugalde Kul- tur Parkean antolatu zen ekitaldian langileei eman zizkielarik. Han zego- en Xabier Lekuona Egunkariako zu- zendariordea eta bere eskerrak luza- tu ezezik, erredakzioa bisitatzeko gonbitea ere luzatu zien, hau prest dagoenean.

Pedro Aranburu Ikastolen Elkar- teko lehendakariak ekitaldi eta lan guztien zentzu pedagogikoaren ga- rrantziaz jardun zuen, ikasleekin eta Ikastolen Elkarteko eta Partaideko arduradunekin batera.


Euskal Herriko unibertsitateetan ere (Baionan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, EHUKo Donostiako, Leioako eta Gasteizko campusetan, Deustun eta Mondragon Unibertsita- tean) egon ziren hitzaldiak, eztabai- dak, manifestaldiak eta bideo ema- naldiak "adierazpen askatasuna, egunkaria aurrera!" lelopean.

GAIA

Bruselako Foyer zentroa

Etorkinak integratzeko ahaleaginean





Proiektu bikulturala eta eleanitza

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren trataera gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da Euskal Herrian. Etorkinak betidanik egon baldin badira ere, gaur egun datozenen ezaugarriak ezberdinak eta anitzagoak dira. Ondorioz, hizkuntza, kultura, ditura eta erlijio ezberdinak nahasten ari dira gurekin batera. Etorkin horien integrazioak kezkatzen gaitu; euskal kultura ezagut dezaten nahi dugu, euskaraz bizi daitezen nahi dugu, eta hori posible izan dadin dauden bideak eta aukerak bilatzen dihardugu.

Bruselan Foyer zentroak 34 urte daramatza etorkinekin lanean eta hango esperientziak hainbat ideia hartzeko balio diezaguke.

Foyer etorkinen integratze zentroa da. 1969 sortu zen Bruselan etorkinen integratze soziala lortzeko helbururekin. Hasieran gazteentzako etxe soila zena proiektu mardulagoa eta zabalagoa bilakatu da urteen poderioz. Urte haueetan guztietan lan talde ugari sortu dira bere barruan eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: zerbitzu soziala, harrera zerbitzua, zerbitzu juridikoa, emakumeen etxea, gazteentzako prestakuntza eta tailerrak... oinarriko gauzak zein goi mailako kontuak bideratzen dira, guztiak ere etorkinen integratze bideratuak. Bruselan etorkinekin egiten den guztia koordinatzen du eta erreferentzia bilakatu da.

Foyerrek bideratzen dituen proiektuak bi motatakoak dira: oinarrikoak eta pilotuak. Oinarrikoak auzoan bertan garatzen direnak dira: auzoko gazteentzako eskolako lanetan laguntzeko tailerrak egiten dituzte, auzoko haurrei, gazteei eta emakumeei elkartzeko lekua eskaintzen die... Badakite proiektu hauekin ez dutela egitura soziala aldatuko, baina hala ere, badakite beharrezkoa den lan bat egiten ari direla.

Proiektu pilotuei dagokienez, beraien bidez dagoen egitura aldatzen saiatzen dira. Adibidez, hezkuntzaren kasuan ikastetxe batean proiektu bikulturala integratzea baino errazagoa izango litzateke ikastetxe berri bat sortzea eta han ezartzea. Baina Foyerren helburua ez da hori, hots, beste hezkuntza egitura bat sortzea, baizik eta dagoena aldatzea. Proiektu pilotuak ez dira auzora bideratzen, Brusela osora baizik.

Foyer irabazi asmorik gabeko erakundea da eta Flandeseko Komunitateak finantzatzen du.

Belgika: Flandes eta Walonia komunitateak

Belgika bi komunitatetan banaturik


dago: Flandes nederlandarra eta Walonia frantsesa (honen barruan alemana hizkuntza ofizialtzat duen eskualde bat dago). Orain dela urte batzuk Walonia aberatsagoa zen ekonomikoki eta indar gehiago zuen. Ondorioz, frantsesaren presentzia eta prestigioa altuagoak ziren eta gizartean norizateko frantsesa jakin behar zen.

Urteak pasa ahala Flandes indartzen joanda, eta gaur egun ekonomikoki indar gehiago du. Nederlandarrek urtetan zehar beraien nortasuna eta hizkuntza aldarrikatu dute eta gaur egun indartuta eta bermatuta daude Flandesen.

Hezkuntza sistemari dagokionez, komunitate bakoitzak bere antolaketa dauka. Belgikan bi hizkuntzak dira ofizialak eta komunitate bakoitzak berea-ri eusten dio. Legearen arabera, Flandesen irakaskuntza nederlandaraz egin behar da eta Walonian frantsesaz. Flandesen nederlandaraz bizi dira eta Walonian frantsesaz. Orain dela gutxi arte Walonian irakaskuntza frantsesaz egiten zen eta nederlandaraz ikasten Lehen Hezkuntzako 3. mailan hasten ziren. Flandesen, aldiz, ikasketa guztiak nederlandaraz egiten zituzten eta frantsesarekin 3. mailan hasten ziren. Azken urteotan, ordea, legeak aldatu dituzte komunitate flandiarrek zein frantsesak eta sistema elebidunak sartzen hasi dira.



G



Bruselako egoera elebiduna

Bruselako egoera berezia da, ez baita ez frantsesa eta ez flandiarra, elebiduna baizik. Bi eskola mota daude aukeran: nederlandarrak eta frantsesak. Kaleko hizkuntza frantsesa da nagusiki eta lan merkatuan bi hizkuntzak eskatzen dira: frantsesa eta nederlandera. Ekonomikoki eta geografikoki Brusela Flandesera bideratuta dago.

1996ko urtarrilean Bruselak 948.122 biztanle zituen, horietatik %70,3 belgikarrak eta %29,7 kanpotarrak (%7,8 marokotarrak, %3,1 italiarrak, %2,4 espainiarrak eta %2,2 turkiarrak). Sarritan kanpotarrak kontsideratzen ez diren beste talde batzuk ere badaude: frantziarrak (%3,3), britainiarrak (%0,8) eta alemanak (%0,5). Azken urte hauetan, paperik gabeko etorkinen seme-alabak ere ugartzen ari dira ikastetxeetan. Etorkinen biztan-

Hemendik aurrera Foyerren asmo nagusiak hiru dira. Lehenengoa jatorrizko hizkuntza Bigarren Hezkuntzan integratzea; bigarrena nederlanderako irakasleen artean sentsibilizazio kanpaina egitea eleaniztasunaren onurak ikus ditzaten; eta hirugarrena jatorrizko hizkuntzako irakasleen egoera egonkortzea eta gainontzeko irakasleen estatus bera lortzea.

leria gaztea da eta gero eta familia gehiago daude. Bruselan haurren %50 talde gutxietuetakoak dira. Zenbait eskualdetan mediterraneotik joandakoek biztanleriaren erdia osatzen dute eta euren seme-alabek haur eskolako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen %80 osatzen dute. Etorkinen familia gehienek euren ama hizkuntzan mintzatzen jarraitzen dute.

Bruselako hezkuntza ereduak

Bruselan Hezkuntza Sistema bakarra badago ere, bi hezkuntza azpisistema daude: flandiarra eta frantsesa. Beraz, bi eskola mota dituzte aukeran: nederlandarra eta frantsesa. Sistema bietan haur gehienak 3 urterekin haur eskolara joaten dira, nahiz eta derrigorrezkoa ez izan. Lehen Hezkuntza 6 urtetik 12 urtera arte da eta Bigarren Hezkuntzak 18 urte arte jarraitzen du, hau da, adin horretara arte irakaskuntza derrigorrezkoa da.

Bruselan etorkin gehienak eskola frantsesetara joaten dira. Dena dela, azken 15 urteotan ikastetxe nederlandetara joan diren etorkinen kopurua igo egin da, eta frantsesa hitz egiten dute belgikarrak ere gero eta gehiago jotzen dute zentro nederlandetara. Gurasoak gero eta kontzienteago dira nederlandera jakitea garrantzitsua dela (ekonomikoki eta lana bilatzeko) eta eskola nederlandarretatik haurrak bi hizkuntzak jakinda aterako direla (frantsesa kalean ikasten baitute), zentro frantsesetatik ez bezala.

Memento honetan eskola nederlanderretan dauden haurren %32 ez da jatorriz belgikarra. Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleen %24,9k nederlande-

ra hitz egiten du etxean; %27,2k nahastuta, nederlandera eta frantsesa edo beste hizkuntza bat; %27,7k beti frantsesa; eta %20,2k beste hizkuntza gutxi-tu bat.

Bigarren Hezkuntzako ikasleen %58,7k beti nederlandera erabiltzen du etxean; %20,4k nederlandera eta beste hizkuntza bat (gehienek frantsesa); %12,2k beti frantsesa; eta %8,7k nederlandera eta frantsesa ez den beste ama hizkuntza bat.

Datuen eboluzioak zera erakusten du: etxeko elebakartasuna eleaniztasuna bilakatzen ari dela.

Etorkinentzako aukerak Bruselan

Lehen aipatu bezala, komunitate bietan aldatu dira legeak irakaskuntzan hizkuntza bat baino gehiago irakatsi ahal izateko, bai jatorriz belgikarrak diren haurrentzat eta bai haur etorkinentzat.

Etorkinei dagokionez, 1977an Belgikak hitzarmen europar bat sinatu zuen eta beronen bidez haurrei hezkuntza ama hizkuntzan jasotzeko eskubidea onartzen zitzaien. Ildo horretatik, 1981ean Foyerrek lehen proiektu bikulturala abiatu zuen zazpi haur etorkin italiarrekin eta urtebete berandua go beste bat haur etorkin espainiarrekin. 1983an etorkin turkiarrentzat ezarri zuen eta 1984an proiektu pilotu bezala onartua izan zen, ordura arte iniziatiba pribatu bezala atera baitzen aurrera. Aipatu behar da Foyerrek komunitate nederlandarrean egiten duela lan, eta beraz, bere proiektua eskola nederlandetan garatzen duela, eta ez frantsesetan.

1991an Hezkuntza Ministeritza flandiarrek etorkinekiko zuen politika aldatu egin zuen eta hezkuntza bikulturala aukera bezala onartu zuen. Horren babesean garatu da Foyerren proiektua eta gaur egun espainiarako proiektu bikulturallean 120 haur dabilta, turkierakoan 300 eta italiarakoan 80.

Proiektua Haur eta Lehen Hezkuntzan garatzen da memento, oraindik ez baitiote baimenik eman Bigarren

G

G A I A

Bruselako Foyer zentroa

Etorkinak integratzeko ahaleginean



Hezkuntzan jarraipena emateko. Etapa horietan haurrek astean 28 ordu egiten dituzte gelan. Haur Hezkuntzako hiru urtetan haurrek 28 ordu horietatik 6-8 jatorrizko hizkuntzan egiten dituzte. Lehen Hezkuntzan, 1. mailatik 6. mailara kopuru hori gutxituz joaten da, azkeneko mailan 2 edo 3 ordu dedikatzen dizkiotelarik. Era berean, 3. mailatik aurrera frantsesa 3. hizkuntza bezala ikasten hasten dira, eta ingelesarekin Bigarren Hezkuntzan hasten dira, gainontzeko ikastetxe nederlanderetan bezala.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan proiektuko haur hauek gela berezi batean egoten dira, hots, ez dira gainontzeko haurrekin nahasten. Beste modu batera esanda, ikastetxean dena nederlanderaz egiten duten ohiko gela bat edo bi egoteaz gain, espainiarako (edo proiektuaren arabera, italiarako edo turkiarako) beste gela bat egoten da. 3. mailatik aurrera elkartzen eta nahasten dira beste haurrekin.

Banaketa horrek ghettoak sortzeko aukera eman dezake, baina arduradunek diotenez, irakurketa-idazketarekin hasten direnean hobe da bereiztuta edukitzea, kasu batzuetan alfabetoia eta soinuak ere ezberdinak baitira. Modu horretan hizkuntza bakoitzaren oinarria hobeto ulertzen eta barneratzen dutela diote.

Jatorrizko hizkuntza murgiltze eredu oinarrituz irakasten dute hasierako urteetan, hau da, beste gaiak edo ikasgaiak ikasteko erabiltzen dute, ez ikasgai soil bezala. Hasierako irakurketa eta idazketa jatorrizko hizkuntzan zein nederlanderan egiten dute. Eta noski, prozesu honetan guztian bi hizkuntzetako irakasleen koordinazioa

eta elkarlana funtsezkoak dira. 3. mailatik aurrera ikasgai bezala jarraitzen du ama hizkuntzak eta historia, geografia, kultura eta abar ikasten dituzte. Proiektuko haur etorkinek ama hizkuntzako eskolak hartzen dituzten bitartean, beste ikasle belgikarren eskulanak, erlijioa... ikasten dute.

Emaitzak ikusi dira

Foyerreko proiektua jarraitu duten ikasleengan nabaritu den ondoriorik aipagarriena goi mailako ikasketen jarraipena izan da. Ohikoena haur etorkinek lanbide bat ikastea baldin bada, Foyerreko ikasle etorkinek goi mailako ikasketak egin ohi dituzte. Gainontzeko etorkinek baino maila altuagoa lortzen dute, alde horretatik.

Beste ondorio bat zera izan da: ama hizkuntza informalean lortzen duten hiztegia nederlanderan informalean lortzen dutena baino aberatsagoa dela.

Horrez gain, Lehen Hezkuntzaren amaieran gainontzeko etorkinek baino maila hobea lortzen dute nederlanderan. Hortik ondorioztatzen da komunikaziorako oinarriko pausoak jatorrizko hizkuntzan egiteak ondorio positiboak dituela bigarren edo hirugarren hizkuntzan.

Orokorrean esanda, bikulturalitateak ama hizkuntza ikasteko eta mantentzeko aukera ematen du eta horrek etorkinei sozialki integratzen laguntzen die.

Bultzatzaileen hausnarketa

Proiektuaren bultzatzaileek eta arduradunek ere, emaitzak ikusita, zenbait ohar aipatzen dituzte.

Hasteko, ikastetxearen kasuan, Bigarren Hezkuntzari begira dituen on-

dorioak ikusita, elebitasuna eta bikulturalitateak curriculumeko zati izan beharko lukeela diote. Horrekin batera, nederlanderako irakasleek eta gainontzeko hizkuntzetako irakasleek maila bera eduki beharko luketela azpimarratzen dute. Hirugarrenik, ama hizkuntzako irakasleek taldean ondo integratuta egon beharko luketela. Era berean, garrantzitsutzat jotzen dute eskolako antolaketa eraginkorra izatea, zuzendariak giroa eta antolaketa ondo bideratzea, irakasleek beraien eta ikasleen gaitasunean sinestea eta familiarekin erlazioztatzea.

Proiektuan subjektu izan diren ikasleen iritziz, garrantzitsua izan da ikasleek beraiengan izan duten konfiantza, atzean izan duten pertsonaren laguntza (eskolan, familian edo auzoan) eta gurasoek euren eboluzioa jarraitzea. Jatorrizko hizkuntza ikasteak indartsuago egin dituela aditzera ematen dute.

Hemendik aurrera Foyerren asmo nagusiak hiru dira. Lehenengoa jatorrizko hizkuntza Bigarren Hezkuntzan integratzea; bigarrena nederlanderako irakasleen artean sentsibilizazio kanpaina egitea eleaniztasunaren onurak ikus ditzaten; eta hirugarrena jatorrizko hizkuntzako irakasleen egoera egonkortzea eta gainontzeko irakasleen estatus bera lortzea.

Foyerreko arduradunek argi daukate proiektu bikulturala etorkinei zuzendurik egon arren, eleaniztasuna belgikarrentzat ere onuragarria dela. Horregatik, eleaniztasuna hezkuntza sistema osoan integratzearen aldekoak dira eta denborarekin lortuko dela koan daude.

Foyer etorkinekin eskolan, etxean eta kalean

Foyerreko kideek argi daukate etorkinak belgikar kulturaren integratu behar dutela, baina beraien jatorrizko

kultura errespetatuz eta ezabatu gabe. Proiektu bikulturala da hori lortze bidean esku artean daukaten egitas-

moetako bat, baina gehiago ere badi-tuzte, hurrengo taulan ikus daitezke-en bezala.

Lehen Hezkuntza (6-12 urte)		
Ikastetxeetan	Gurasoekin	Haurrekin
<p>Proiektu bikulturala</p> <p>7 ikastetxetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - hiru turkieraz - bi italieraz - bi espainieraz <p>Vivace</p> <p>1. Irakasleentzako prestakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> - beste hizkuntzen irakaskuntza - joko interkulturalak - aniztasunaren aurreko jokaerak - Hego Afrika, Maroko eta Turkiari buruzko proiektuak <p>2. Irakasle berrien sentsibilizazioa</p>	<p>Proiektu bikulturala ez duten 21 ikastetxetan</p> <ul style="list-style-type: none"> - nederlanderako eskolak eman - bitartekaritza lana - hitz egin: hizkuntza aniztasunaz, arazo pedagogikoez, hezitzaileez eta osasun arazoez <p>Proiektu bikulturala duten ikastetxeetan</p> <p>idem +</p> <ul style="list-style-type: none"> - gurasoekiko harreman estua - itzulpenak - eskolaren, gurasoen eta irakaslearen arteko bitartekaritza lana <p>Laguntza indibiduala</p> <ul style="list-style-type: none"> - informazioa eman - gai ezberdinak landu - bitartekaritza lana 	<p>Aisialdia</p> <ul style="list-style-type: none"> - hizkuntza oporrak (haur etorkinak bost egunetan familia belgikarrekin egoten dira) - kanpaldiak - irakurketa proiektuak <p>Proiektu sortzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> - antzerkia - kirolak <p>Aktibitate kulturalak</p> <ul style="list-style-type: none"> - etorkinen jatorrizko herrialdeko jaiak - dantza folklorikoak

Bigarren Hezkuntza (12-18 urte)		
Ikastetxeetan	Gurasoekin	Gazteekin
<p>Proiektu bikulturaleko balizko ikastetxeak</p> <ul style="list-style-type: none"> - zentroekin kontaktatu - arazo indibidualak landu - gurasoen bilerak itzuli <p>Vivace</p> <p>1. Irakasleentzako prestakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> - beste hizkuntzen irakaskuntza - aniztasunaren aurreko jokaerak <p>2. Irakasle berrien sentsibilizazioa</p>	<p>Proiektu bikulturala ez duten 6 ikastetxetan</p> <ul style="list-style-type: none"> - nederlanderako eskolak eman - bitartekaritza lana 	<p>Motibazioa bultzatzeko ekimenak</p> <ul style="list-style-type: none"> - etxerako lanak egiteko laguntza - udako kanpaldiak - laguntza indibiduala - orientazioa <p>Proiektu sortzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> - antzerkia - kirolak

Sint Jan Berchmans ikastetxeko esperientzia



Foyerren proiektu bikulturala duen Bruselako ikastetxeetako bat Sint Jan Berchmans da. Bertan 1981ean jarri zuten martxan espainierako proiektua eta memento honetan 100 haur dabilta.

Haur Hezkuntzako haurrekin Nuria Borrás irakasle katalana dago. 3 urtekoen gelan zazpi haur ditu, 4 urtekoen gelan bederatzi eta 5 urtekoen gelan beste hainbeste. Talde bakoitzak astean bi egun pasatzen ditu berarekin, esan nahi baita bi egun horietan espainieraz jarduten direla.

Haur batzuk etxean espainiera hitz egiten dute, eta beste batzuk ez. Horrez gain, kontuan hartu behar da batzuk 1. belaunaldiko etorkinen seme-alabak direla, eta beste batzuk 3. eta 4. belaunaldikoak. *“Etorkinen biztanleria antzeta da”*, argitzen digu Borrás irakasleak. *“70eko hamarkadan meategietara lanera etorritako espainiarren bilobekin aurkitzen gara orain. Haur horien gurasoek frantsesa ikasi dute eta askok espainiera galdu ere bai. Horregatik, batzuk etxean frantsesa hitz egiten duten bitartean, beste batzuk espainiera, eta hori, noski, haurretan antzematen da. Bestalde, hegoamerikako hauren lehen belaunaldikoak iristen ari dira eta horiek ez dute frantsesez egiten etxean”*.

Ezberdintasunak ezberdintasun, irakaslearen helburua haur horiek espainieraz hitz egitea da, ama hizkuntzan duten hiztegia aberastea. Horretarako, hizkuntzaren erabilera da ardatz

eta gelako ekintza guztiak horretara bideratzen dira: erosketak eginez zenbaitzen eta janarien izenak ikasten dituzte, ipuinak kontatuz mintzatzeko erraztasuna lantzen dute...

Hori guztia barneratuta gelditzen zaie eta Lehen Hezkuntzan gehiago sakontzen dute. Sint Jan Berchmans-en Lehen Hezkuntzako espainierako irakaslea Virtudes Hernandez da. Berak azaldu digu zer egiten duen maila horietan: *“1. eta 2. mailan idazten eta irakurtzen ikasten dute eta 3. mailatik aurrera ikasitakoa sakontzen da hiztegia handituz, esaldiak zuzen idazten ikasiz, egitura gramatikak ikasiz... Horrekin batera kultura lantzen da: historia, geografia... Haurrek euren jatorrizko hizkuntzarekin kontaktua edukitzea da xedea”*. Edozein modutan, gela horietan dauden haur guztien jatorria ez da Espainia, herrialde gehiagotatik ere joaten baitira: Ekuador, Kolonbia... Horren aurrean, eraldaketa batzuk egin behar izan dituzte eta herrialde guztietako kultura lantzen dute orain. *“Denok berdinak garela eta elkar errespetatu behar dugula irakatsi nahi diet”*.

Normalean 8-15 haur bitarteko taldeak osatzen dira 1. eta 2. mailan, eta 3. mailan nederlanderako beste taldearekin elkartzen dira. Memento horretan ez dutela arazorik izaten komentatzen du Hernandezek, eta berehala egokitzen direla.



Klaustroko kideak atsedenaaldian.



Marisa Mendosa, gida izan dugun Foyerreko kidea.

G A I A

Bruselako Foyer zentroa

Etorkinak integratzeko ahaleginean

G

Hilde De Smedt

Foyerreko hezkuntza alorraren eta
proiektu bikulturalaren arduraduna



Etorkinak errespetatuak
sentitzen dira euren hizkuntza eta
kultura aintzat hartzen direnean,
eta horrek beste hizkuntzak
ikastea, eta integrazioa bera,
errazten du



Hilde De Smedt

E

Denbora daukagu haur elebidunak edo eleanitzak lortzeko. Ezin dugu pentsatu sei urtetan egingo dugunik. Ikasleek 18 urte arte eskolara joan behar dutenez, guk 18 urte arte daukagu denbora. Zentzu horretan, gure plangintzan lasaitasuna eta denbora aintzat hartzen ditugu

Foyer etorkinen integratuziorako zentroak adar asko ditu eta horietako bat hezkuntzakoa da. Horren arduraduna da Hilde De Smedt.

Etorkinen integrazioa lortzeko hezkuntza sisteman zenbait aldaketa egin behar zirela uste zuten Hildek eta bere lankideek. Holandako Foyerrek sisteman bertan jatorrizko hizkuntzaren irakaskuntza berma zedin lortu zuen. Haatik, Belgikako egoera eta legeak ez dira berdinak. Zaila da dagoen sistema eta egitura aldatzea, baina ahaleginak bere fruituak ematen ditu: Bruselako zazpi ikastetxetan proiektu bikulturalak ezarrita daude etorkin italiarrentzat, espainiarrentzat eta turkiarrentzat, eta datorren ikasturterako beste zentro batean arabiarrentzat eskaintzea espero dute.

Etorkinen jatorrizko hizkuntza eta kultura errespetatzeak beren integrazioa errazten duela frogatu dute, eta bide batez eleaniztasunaren abantailak ikusarazi ere bai. Edonola ere, bidea ez da erraza: ikastetxeak, irakasleak, gurasoak eta instituzioak konbentzitu beharra dago.

Etorkinez hitz egiten hasi aurretik, zein kontsideratzen dituzue haur etorkinak Bruselan?

Etorkinak hona lanera etorritakoak, errefuxiatu politikoak, errefuxiatu ekonomikoak, ilegalak... dira, talde horiek denak. Dena dela, etorkin hitza ez dugu erabiltzen normalean, autoktonoak eta aloktonoak baizik. Autoktonoak nazionalitate belgikarra dutenak dira, eta aloktonoak nazionalitatea belgikarra ez dutenak. Kontuan izan behar da etorkinen edo aloktonoen kasuan nazionalitate belgikarra 3. belaunaldiak eskuratzen duela automatikoki; aurrekoek eskatu egin behar izaten dute. Horri loturik, boto eskubidea belgikarrek soilik dute eta horrek eragin handia du, politikoei botoa eskuratzeke garaian zure aldeko gauzak egiten baitituzte. Orokorrean belgikarrek abantaila gehiago dituzte.

Zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua proiektu bikulturala eskaintzea aloktonoei?

Hasteko, beren hizkuntza ezagutzeko eta jakiteko eskubidea dutelako. Batzuek etxean italiara, espainiera, turkiera edo arabiera hitz egiten dute eta hizkuntza hori ikasteko eskubidea dute. Beste batzuek jadanik etxean ez du-



te jatorrizko hizkuntza hitz egiten hirugarren edo laugarren belaunaldikoak direlako, baina beraien jatorrizko hizkuntza eta kultura ezagutzeko eskubi-dea badute.

Noiz eta non hasi zineten proiektu bikulturalarekin?

Orain dela 20 urte hasi ginen eta hiru hizkuntzakoak dauzkagu: italiar-koa, espainiar-koa eta turkiar-koa. Guztira Bruselako zazpi ikastetxetan gabiltza: bitan italiar-ko proiektuarekin, beste bitan espainiar-koarekin eta beste hirutan turkiar-koarekin.

Nondik sortu zen beharra edo eskera?

Hasieran Foyer kokatuta dagoen auzoan hasi ginen lanean, bertako etorkinen beharrei erantzuten: haurrei, emakumeei, gazteei... elkartzeko lekua eskaitzen zitzaizen, ikastaroak, tailerrak, eskolako lanak egiteko laguntza... Baina lan horrek hezkuntza sisteman ere isla eta jarraipena izan behar zuela iruditzen zitzaigun eta horregatik sortu genuen proiektu bikulturala.

Noski, lehenengo lana proiektua ezarri nahi zuen ikastetxe bat aurkitzea izan zen. Italiar-ko eskola nahi izan zuen ikastetxe batekin hasi gin en. Behin hori eginda, ondoren espainiar-ko, turkiar-ko eta arabier-ko proiektuak etorri ziren.

Etorkinen komunitatean berehala zabaltzen da horren berri eta jatorrizko hizkuntza landu nahi dutenek horra bidaltzen dituzte seme-alabak, nahiz eta ikastetxea beraien auzoan ez egon. Beste batzuk, ordea, auzoko eskola normaletan gelditzeko hautua egiten dute.

Zer abantaila eskaintzen die ikasleei jatorrizko hizkuntza lantzeak?

Hasteko, errespetatuak sentitzen dira euren hizkuntza eta kultura aintzat hartzen direlako, eta horrek beste hizkuntzak ikastea, eta integrazioa bera, errazten du.

Bestetik, nortasuna lantzen dugu eta etorkinen komunitateei entzun egi-

ten diegu. Gurasoekin, haurrekin, irakasleekin... egiten dugu lan eta beren bururi buruzko hausnarketa egiteko aukera ematen diegu. Horrek izugarri errazten du integrazioa.

Nola egituratzen da proiektu bikulturala eskolan?

Belgikan Haur Hezkuntza hiru urtekoa da eta Lehen Hezkuntza sei urtekoa. Hasieran, Haur Hezkuntzan, nederlandar-ko 20 ordurekin eta jatorrizko hizkuntzan 8 ordurekin hasten gara, eta jatorrizko hizkuntzako orduak pixkanaka-pixkanaka gutxituz joaten gara. Gure oinarria da ordu askorekin hasi eta gutxituz joatea. Hasieran oinarria hartzea oso garrantzitsua da eta horregatik hasten gara ordu askorekin. Ondoren, nahiz eta ordu gutxiago izan, jarraipena ematen zaio, jatorrizko hizkuntza baliagarria izan daitekeelarik hainbat gauza esplikatzen.


Bigarren Hezkuntzan ez al du jarraipenik?

Orain arte ez, baina gure ideia jatorrizko hizkuntza Bigarren Hezkuntzan ere integratzea da. Legeak Lehen Hezkuntzan baino askatasun gehiago ematen du Bigarren Hezkuntzan beste hizkuntzak integratzeko. Nire ustez, sistema horretaz baliatu behar dugu eta atzerriko hizkuntzez gain, jatorrizko hizkuntza ere sartu. Holandan, esate baterako, horrela egiten dute: gela batean bi ordu daukazu frantsesa, ingelese, espainiera, arabiera, turkiar... aukeratzeko eta azterketa ofizialak eta dena egiten dira. Sarritan bi gela antolatzen dira; bata hizkuntza badakitenentzat eta bestea ikasi nahi dutenentzat. Horrek aukera ematen die arabieraz, turkiaraz edo italiaraz interesa duten holandarrei hizkuntza horiek ikasteko.

Hori garrantzitsua iruditzen zait, eskaintza ez baita etorkinentzat soilik, baizik eta interesa duten guztientzat.

Hemen oraindik ez daukagu hori egiteko modurik, baina ahaleginak egiten ari gara proiektuari Bigarren Hezkuntzan jarraipena emateko.

Gainera, kontuan izanik Bigarren



Hezkuntza derrigorrezkoa dela 18 urte arte, denbora daukagu haur elebidunak edo eleantzak lortzeko. Ezin dugu pentsatu sei urtetan egingo dugunik. Irakasleek 18 urte arte eskolara joan behar dutenez, guk 18 urte arte daukagu denbora. Zentzu horretan, gure plangintzan lasaitasuna eta denbora aintzat hartzen ditugu.

Zer baldintza behar ditu ikastetxe batek proiektu bikulturala modu egozian aurrera eramateko?

Ikastetxe batean proiektua ezartzeko funtsezkoa da zuzendaritza ados egotea, eta baita irakasle gehienek borondatea edukitzea ere. Jendea oso garrantzitsua da. Proiektua ona izan liteke eta ondo antolatua eta egituratua egon, baina hori guztia pertsona batzuk gauzatzen dute. Egitura ona eduki arren jendeak nahi ez badu, ezin da aurrera egin. Beraz, lehenengo jendea da, jendeak nahi izatea eta sinestea, eta gero proiektua.

Alde horretatik, irakasleen papera funtsezkoa da. Nederlandar-ko irakasleek eta jatorrizko hizkuntzetako irakasleek balio eta erantzukizun bera

Hilde De Smedt

E

Proiektua ona izan liteke eta ondo antolatua eta egituratua egon, baina hori guztia pertsona batzuk gauzatzen dute. Egitura ona eduki arren jendeak nahi ez badu, ezin da aurrera egin. Beraz, lehenengo jendea da, jendeak nahi izatea eta sinestea, eta gero proiektua. Alde horretatik, irakasleen papera funtsezkoa da.

eduki behar dute eta haurrek hori ikusi behar dute. Arabierako irakaslea bazteta ikusten badute eta gainontzeko irakasleek gauza berezi bezala begirutzen baldin badiote, nola emango diegu haurrei konfiantza gehiago? Haurrek nederlanderak eta arabierak eskolan balio bera dutela sentitu behar dute.

Irakasleen arteko berdintasun aipatu duzu. Zer iritzi dute, bada, nederlanderako irakasleek jatorrizko hizkuntzako irakasleei buruz?

Batzuek ondo ikusten dituzte, baina beste batzuek ez dituzte onartzen. Esate baterako, arabiarrentzako proiektua ezarri genuen ikastetxean bost urte pasa genituen eta emaitza onak ematen ari zen. Baina halako batean kentzea erabaki zuten. Zergatik? Nederlanderako irakasleek ez zutelako onartu arabiera garrantzitsua zela haurrentzat. Dena nederlanderaz ikasi behar zutela pentsatzen zuten, arabieraz ikastea denbora galtzea zela.

Horregatik, irakasleen artean sensibilizazio kanpainak egitea oso garrantzitsua da.

Zer emaitza eman dute orain arteko esperientziak?

Esate baterako, memento honetan italiarako proiektuan dauden haurrak hirugarren belaunaldikoak dira, esan nahi baita euren aitona-amonak direla

Italiatik etorritakoak. Etxean frantsesa hitz egiten dute eta eskolara etortzen direnean hasten dira nederlanderarekin eta italiararekin. Haur Hezkuntzan nederlanderaz 20 orduz aritzen dira eta italiaraz 8. Logika horrekin, Haur Hezkuntzaren amaieran nederlanderan hiztegi aberatsagoa izango dutela pentsa liteke.

Probek, ordea, alderantzizkoa frogatu dute: italiara gehiago ezagutzen dutela. Orduan, zer gertatzen da? Ezberdintasun horren zioa hizkuntzarekiko harreman emozionala da. Haur bat italiarako lehen hitzak esanez iristen denean etxera, familia guztia adi gelditzen da: telefonoa hartu eta Italiara deitzen dute "bambino" txikiaren hitzak entzun ditzaten. Nederlanderarekin, aldiz, ez da hori gertatzen. Familiak emozionalki ez du bizitzen nederlanderan eta harreman emozionala da motorea.

Ikastetxe bakoitzean hizkuntza bateko proiektua daukatzue: italiararokoa, espainiararokoa edo turkiararokoa, nahastu gabe. Baina zentro berean jatorri ezberdineko haurrak baldin badaude, ez al duzue planteatu jatorrizko hizkuntza bat baino gehiago integratzea eskola berean?

Berez, posible da, baina izugarriko antolaketa eskatzen du. Ikastetxe batek turkiar, marokoar eta espainiar



asko baldin baditu, bakoitzarekin talde bana egin dezake. Baina horiez gain, taldetxo txiki bat geldituko da hiru greziarrek, hiru belgikarrek... eta talde hori aurrera eramatea zailagoa da. Horrelako kasuetan gurasoekin batera lantzeko proiektu bereziak egiten ditugu: nederlanderako ikastaroak, informatika... eta balio erantsi bat izaten dute gurasoentzat eta haurrentzat.

Dena dela, jatorri ezberdineko haurrak baldin badaude, beste proiektu mota bat egin beharko litzatekeela uste dut. Holandan, adibidez, ikastetxe askoren arteko kolaborazioa dela medio, haurrak bildu egiten dira. Borondatea baldin badago, badaude sistemak.

Brusela elebiduna da, baina zein da bi hizkuntzen egoera kalean eta hartzunen artean?

Haur turkiar bat etorkin asko dagoen Ambereseko auzo batean bizi baldin bada, hirian mugitzeko, tren hartzeko, erosketak egiteko... nederlanderak beharko du. Nederlanderak bere bizitzan balio bat duela sentituko du: akaso goxokiak erosteko, baina balio bat du.

Bruselan, aldiz, nederlanderak ez da ezertarako behar, ezertarako ere ez, frantsesa baizik. Lehen frantsesak indar ekonomiko eta prestigio handiagoa zuen. Gaur egun ez da horrela, nederlanderak lortu du leku hori eta edozein lanpostutarako eskatzen dute. Hala ere, oraindik eguneroko bizitzako hizkuntza, kaleko hizkuntza, komunikazio hizkuntza, frantsesa da Bruselan, eta ez nederlanderak. Beraz, haurrek nederlanderak eskolan ikasten dute, baina hortik kanpora ez dute hizkuntza hori erabiltzeko beharrik sentitzen, ezta etxean ere.

Beraz, haurrek eskolan soilik hitz egiten badute nederlanderak, jatorrizko hizkuntza ikasteak ez al dio kalterik egiten nederlanderari?

Horren inguruan hainbat proba egin ditugu. Proiektu bikulturalen dauden zenbait haurrek nederlanderarekin arazo batzuk dituztela ikusi dugu. Baina beste faktore garrantzitsu batetaz



ere ohartu gara: Sint Jan Berchmans ikastetxean espainierako proiektua daukagu, eta beraz, etorkin espainiarrek Haur eta Lehen Hezkuntza osoa espainierako gelan egiten dute eta beste haur etorkinek nederlanderaz. Bada, egindako probetan denek nederlanderako maila bera dutela ikusi dugu. Horrek esan nahi du ez dutela nederlanderaren maila galdu espainierako gelan aritu direnek. Beraz, teoriak dioena baieztan da: jatorrizko hizkuntza ezagutzeak beste hizkuntzak ikasten laguntzen duela.

Arazoa ez da jatorrizko hizkuntza ikastea, nederlanderak irakasteko modua baizik, didaktika. Orain arte Belgikan ikastetxeek ez dituzte egokitu beren programak etxean nederlanderak hitz egiten ez duten haurrentzat.

Baina komunikatzeko maila ona lortzen al dute nederlanderan?

Bai, lortzen dute. Hasieran gure helburua da nederlanderak egoki ikastea: irakurketa-idazketa, hitz egitea, eskolako hiztegia, gero lanerako baliagarria izango den hiztegia... Gero, bigarren helburua da, ahal bada, harreman emozionalen arabera, zerbait gehiago lortzea: giro atsegineko esperientziak bizitzea hiztegi emozionalagoarekin.

Dena dela, hizkuntza guztietan gauza berdinak jakitea ezinezkoa da. Ni etorkin italiarra baldin banaiz, eta nederlanderak eskolan ikasten badut, frantsesa kalean lagunekin eta italiara

etxean, hizkuntza bakoitzeko hiztegia ezberdina izango da: nederlanderakoa eskolarra; frantsesekoa kalekoa, kirolakoa...; eta italiarrena etxekoa. Eta hori ez da larria. Azken finean, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzen dituen pertsonak bakoitza modu ezberdinean ezagutzen du. Gure helburua hizkuntza guztietan hiztegi bera edukitzea baldin bada, ez dugu inoiz lortuko.

Bruselatik at, beste eskualdeetan ez al dago etorkinei bideratutako proiekturik?

Bai badaude, baina ezberdinak dira. Walonian, adibidez, jatorrizko hizkuntzaren irakaskuntza ez dago eskolan integratua, ikastetxeetatik at ematen dituzte eskolak.

Flandesen jatorrizko hizkuntzari eskaintzen zaion ordu kopurua gutxiago da eta helburua laguntza ematea soilik da, hau da, haurrei oraindik nederlanderaz ulertzen ez dituzten gauzak azaltzeko erabiltzen da jatorrizko hizkuntza. Adibidez, matematika nederlanderaz irakasten dute eta azalpenak turkieraz ematen dituen irakasle baten laguntza edukitzen dute.

Niri ongi iruditzen zait irakasle laguntzailea edukitzea, baina gure helburua haratago doa. Gure xedea eleantzasuna da, haur eleantzik prestatzea. Haur etorkinei euren jatorrizko hizkuntza jakiteak integratzen laguntzen diela ikusten badut, horretan lagunduko diet.

Arazoa ez da
jatorrizko hizkuntza
ikastea,
nederlandera
irakasteko modua
baizik, diaktika.
Orain arte Belgikan
ikastetxeek ez
dituzte egokitu
beren programak
etxean nederlandera
hitz egiten ez duten
haurrentzat

Eta noski, eleaniztasun hori nortasunarekin lotuta dago, biak lantzen ditugu.

Beraz, gure proiektuak helburu gehiago dituenaz, Hezkuntza Ministeritzari ordu gehiago emateko baimena eskatu genion, eta proiektu bezala baiezkoa eman ziguten. Gure kasua berezia da.

Aipagarria da, era berean, Ministeritzaren eta gure proiektuaren arteko ezberdintasun handi bat irakasleetan dagoela: haiek enbaxadako irakasleekin egiten dute lan eta guk ez. Eta nire ustez, enbaxadako irakasleen sistema txarra da. Nik sistema horrekin lan egin beharko banu, ez nuke egingo.

Zergatik diozu enbaxadako irakasleekin lan egitea ez dela egokia?

Enbaxadako irakasleak lau urterako etortzen dira Belgikara, nederlandera edo frantses izpirik jakin gabe, hemengo hezkuntza sistema ezagutu gabe eta hemengo haurren bizimodua nolakoa den jakin gabe. Haurrei irakastera etortzen dira, baina haurrak Turkian, Espainian edo Italian biziko balira bezala. Ez dute kontakturik gurasoekin nahiz eta haien hizkuntza jakin. Eta ez daukate guk daukagun mentalitatea.

Haatik, Ministeritzarentzat oso sistema erraza da eta debalde ateratzen zaio. Hezkuntza Ministeritzak badaki proiektu hau garrantzitsua dela haurrentzat, baina ez du dirurik gastatu nahi.

Eleaniztasuna edo bikulturalitatea haur etorkinentzat soilik planteatzen al da?

Orain arte bai, legeak ez baitu besterik baimentzen. Gure proiektu bikulturaleran haur etorkin espainiarrek, italiarrek eta turkiarrek soilik parte har dezakete. Guraso belgikar batek bere haurra bikulturalerako gelan sartzeko eskatzen badigu, ezin diogu baiezkorik eman legeak ez duelako uzten. Horrelako kasu bat eduki genuen. Hezkuntza Ministeritza flandiarrari gutun bat bidali genion esanez guraso flandiar batek bere semea italiarako gelan sartu

nahi zuela, eta erantzuna ezezkoa izan zen.

Edonola ere, orain gauzak aldatzen hasi dira. Orain arte Bruselako ikastetxe frantsesetan frantsesa baino ez zen irakasten, baina orain nederlandararekin ere hasi dira. Hori ikusirik, noski, zentro nederlandarrak ere mugitu dira.

Batez ere gurasoen pentsatzeko era aldatu da azken urteotan. Maila sozial altua duten gurasoek zera pentsatzen dute: haur espainiarrek, italiarrek edo turkiarrek hiru hizkuntza ikasten baldin badituzte, gure haurrek zergatik ez?

Dena dela, nik arrisku bat ikusten dut: eskola elebidunak edukiko ditugula nederlandararekin, frantsesarekin eta agian ingelesarekin, baina beste hizkuntza gutxituak sartzea oso zaila izango dela.

Hezkuntza sistema, proiektuak nahiz aukerak legearen baitan daude. Zer diote lege belgikarrek haur etorkinen hezkuntza eskubidearen inguruan?

1977an Belgikak hitzarmen europar bat sinatu zuen eta hark zioen etorkinen seme-alabek ikasgai bat beren jatorrizko hizkuntzan jasotzeko eskubidea dutela. Ministeritzak bere kabuz ez zuen ezer egin. Foyerrek 1982an lehen proiektu bikulturala jarri zuen martxan haur italiarrek eta Ministeritzak hori erakutsi zuen European. Niri ez zait axola gure proiektua erabiltzea, baldin eta egokia iruditzen bazaio orokortzeko modua bilatzen badu. Orokortze horri ez dio ezetzik esaten, baina aurrera-pausorik ere ez du ematen. Pauso bat aurrera eta bi atzera.

Ministeritzak 1991an jarri zuen haur etorkinentzako politika edo sistema berezi bat eta OBL izena jarri zion. Han zera esaten zen: ikastetxe bakoitzak landu behar dituela nederlandera, kulturartekotasuna, gurasoekiko harremana, arazoak dituzten haurrentzako programak, eta 20 edo 30 pertsonen eskatzen badute, kurso bat antolatu behar duela.

Horren haritik, guk OETC (Irakas-kuntza jatorrizko hizkuntzan eta kultu-

ran) proiektua egin genuen eta OBL hezkuntza politikaren 5. puntua betetzen zuen, hots, oraintxe aipatu ditugunak: ikastetxe bakoitzak nederlandera landu behar duela, aktibitate interkulturalak antolatu, gurasoekin harremanak izan, arazoak dituzten haurrentzako programak eduki eta 20 edo 30 pertsona eskatzen badute, kurso bat antolatu.

Errealitatea, ordea, bestelako izan da. OETC aukera libre bezala utzi zuten, hots, ez zuten orokortu. Nik ulertzen dut aukera libre bezala uztea, sistemak enbaxadako irakasleekin funtzionatzen baitu eta horrelako sistema txarra ezin delako behartu.

Orain beste politika bat daukagu: GOK, aukera berdintasuna irakaskuntzan.

Zer aldaketa ekarri du GOK politika berri horrek?

Funtsean ezer ez, beste hitz batzuekin gauza bera eskatzen baitu: ikastetxe bakoitzak nederlandera landu behar duela, aktibitate interkulturalak, gurasoekiko harremanak, arazoak dituzten haurrentzako programak... eta OTEC aukera bezala uzten du.

Guretzat aldaketa hor dago: OTEC buruz ez baitute ezer esaten. Orduan, orain nola gaude? Illegalak al gara? Dirulaguntza jasotzen dugu, baina legeak ez du ezer esaten, babes legalik ez daukagu.



Hori aldatzeko aukerarik ikusten al duzue?

Aurtengo ikasturte amaierarako hezkuntza dekretu bat egingo dute hauren eskubideei buruz. OETC eskubide bezala integratuko dutela esan dute, baina orain arte ez dut ezer entzun.

Zergatik ez daukate interesik OETC eta zuen proiektua aintzates ten?

Ekonomikoki kostu bat daukalko, hori da arrazoi nagusia, eta baita ikastetxeek eta irakasleek ere nahi ez dutelako.

Nik arrisku bat ikusten dut: eskola elebidunak edukiko ditugula nederlanderarekin, frantsesarekin eta agian ingelesarekin, baina beste hizkuntza gutxiituak sartzea oso zaila izango dela



Teknologia Berriak

Bertso doinutegia Interneten eskuragarri

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen web orrian, beste gauza askoren artean, bertso doinutegia topa dezakegu. 1995ean Bertso doinutegia liburua argitaratu zuen Bertsozale Elkarteak Joanito Dorronsorok urteetan bildu eta sailkatu zituen doinuekin. Orain, doinutegi hura egunera-tu eta sarean ezarri dute.

Interneten ikus daitekeen bertso doinutegiaren programa Aitor Sarriegik egin zuen eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak kudeatzen du. Memento honetan 2.775 doinuri buruzko informazioa biltzen du, baina kopurua handituz doa. Joanito Dorronsoro da doinu berriak gehitzen eta zuzenketa egiten ari dena. Hala dio berak: *“euskalmusika bizirik dago, bertsolariekin eta beste produkzioekin lanak ugaritzen ari dira eta horiek gehitzen aritzen naiz”*. Nahiz eta 2.775 doinu egon sarean, dagoeneko 3.000 doinu bildu ditu Dorronsorok eta poliki-poliki jartzen ari dira. Hala zioen Bertso doinutegia liburuaren sarreran: *“Ahozko literaturaren barrenean eta hitzaren kirol nazional gisa definitu izan den arte hau, hitz kantatua denez, literaturaren hesiz kanpoko arlo hau ere, musikarena*



alegia, bete-bete hartzeko duela ikusi nuen, eta bertso munduan orain arte gutxi erreparatutako alderdi garrantzitsua dela jabeturik, definizioak gerorako utzita, bilduma egiteari ekin nion ilusioz”. Hasi zuen lan hura etengabe berritzen eta zuzentzen jarraitzen du Dorronsorok.

Doinutegiaren mamia

Doinutegian aurki daitezkeen doinu guztiak sailkatuta daude eta aurkitzeko modu bat baino gehiago eskaintzen du sareko programa honek. Aukeran dauden sarrerak hauek dira: izenburua, neurria, non jaso, non argitaratu, lurraldea, urtea, mendea, ineditoa, nolakoa, egitura, tonua, bertsolaria, jasotzailea, sortzailea, aldakiak eta oharrak.

Izenburuari dagokionez, irizpide bezala lehenengo bertsoaren hasiera eta bertsolari zaharrenarena jartzea erabaki zuen Dorronsorok, hori delako gogoratzeko errazena. *“Esate baterako, Bilintxen “Bihotz heritua” esanda ez du inork ulertzen, eta aldiz, “Triste bizi naiz eta” esanda bai”*.

Nolakoa atalean aukera anitz agertzen dira: kontakizunekoak, irizkioak, erlijiozkoak, sentimenduzkoak, amodiozkoak, erromantzeak, dantzakoa, gabonetakoa, haurrentzakoa, eskekoa, tragikoa, sehaskakoa, gregorianoa, habanera, tobera, jota nafarra, eta pastoraletakoa.

Bertsolari sarreran, oster, ehunka bertsolarien izenak agertzen dira, eta non jaso atalean ere herri mordoa. Denboraren kasuan,

XVI. mendetik XXI. menderaino-koak biltzen dira.

Non argitaratua atalari dagokionez, zein liburutan argitaratuta dagoen adierazten da. Mementoz liburuetara mugatzen da, baina hurrengo urratsa diskoen erreferentzia ere jartzea izango da, garrantzitsutzat jotzen baitute.

Informazio hori dena hornitze-ko partiturak ere ikus daitezke. Dorronsorok azaldutakoaren arabera, *“partiturak doinuaren eta hitzaren egitura errespetatuz egin dira. Arana Martija hasi zen bertso doinuak horrela idazten, eta geroztik hala egin da. Musikariek konpasak puskatu egiten direla esango dute, baina bertsoaren ikuspegitik ego-kiagoa da, bertsoaren egitura mantendu egiten baita”*. Musika notekin batera, hitzak ere agertzen dira.

Beste aukera bat bertso doinua entzutearena da. Interneteko doinutegiak aukera hori ematen du. Pianoz grabatutako doinuak entzun daitezke mementoz, baina ez dute baztertzeko gerora orkestra osoarekin grabatzeko aukera.

Zertarako erabil daiteke doinutegia?

Batez ere bertsolariei begira eginda dagoela dio Dorronsorok, baina ikastetxeetan ere erabil daitekeela uste du. *“Eskura dauden doinuak zein diren ikusteko aukera ematen du eta doinu bakoitzari buruzko informazio zabala eskaintzen du.”* Hortik aurrera irakasle bakoitzak ikusiko du zein erabilera eman informazio horri guztiari. *“Ni Musikako irakaslea nintzen eta adibidez, lehendabizi Pello Joxepe kantatzen genuen, eta gero doinu horren notak ikasten genituen. Orduan, bi gauza egiten nituen: batetik, Euskal Herriko doinu herrikoiak irakatsi, eta bestetik, musika landu”*. Era berean, irakasle programa urteko garaietara ego-

kitzen zuela dio Dorronsorok: *“Gabonak zirenean Gabonetako kantak, Xalbadorren heriotzaren urteurrenean haren bertsoak, inauterietan garai horretako doinuak, bertsolari bati omenaldiren bat egiten bazitzaion haren bertsoak...”*. Urtean zehar dauden motibazioez baliaturik, horiei egokitu-tako bertsoak eta doinuak lantzeko aukera dago, eta lan horretan oso lagungarri izan liteke Interneten to-pa daitekeen doinutegia. •

Doinutegian aurki daitezkeen doinu guztiak sailkatuta daude eta aurkitzeko modu bat baino gehiago eskaintzen ditu sareko programa honek.





Psikopedagogiako adituaren jarrera etiko-ideologikoa, inoiz baino beharrezkoagoa hezkuntzaren Kalitate Legearen aurrean



Bittori INSAUSTI

NUPEko irakaslea

Hezkuntzaren Kalitate Legea dela eta, nire gogoetak hezkuntza orientabidearen inguruari azaldu nahi ditut, izan ere, gogoeta horiek, lege araudiari dagozkion faktoreen ondorioz, beste behin ere psikopedagogiako adituentzat ondorioztatzen den funtzioa zalan-jantzera eramaten bainaute.

XX. mendearen hasieran, orientabidearen hastapena "lanbide orientabidearekin" lotuta egon zen. Hezkuntza sistemaren paraleloak ziren zerbitzu jakin batzuk ezarri ziren, euskarri lanak beteko zituztenak, bokazioarekin edo lanbidearekin lotutako erabakiak hartzeko unean pertsoneri laguntzeko beharrea oinarrituta.

Hezkuntzaren Lege Orokorrekin (1970), orientabidea prozesu jarraitu eta integral moduan ulertu da, tutoretza kontzeptuari lotuta, eta ikasle guztiek izango dute horretarako eskubidea. Orientabidearen esku-hartzea irakatsi eta ikasteko prozesuan laurogeiko hamarkadan proposatu zen. Lanbide orientabideak bilakaera jasango du gero, eskola orientabiderantz.

Hezkuntza Erreformatik irakasle guztiek tutore eta orientatzaile funtzioa bete behar zutela zehaztu zuen eta, orientabide zerbitzuek euren esku-hartzearen esparrua eta eredia berriro definitu behar izan zituzten. Orientabidea, LOGSEren esparruan, hezkuntzako esku-hartze ororen kalitatea hobetzeko hezkuntza baliabide eta faktore gisa definitu zen. Orientabide zerbitzuak berregituratu egin ziren, sistema berriaren euskarri pedagogiko gisa. Gerentziarekin lotutako funtzioak esleitu zitzaizkion, Hezkuntza Erreforma berriak proposatutako zentroko hezkuntza eta orientabide programak ezartzeko eta garatzeko. Intelektualtasun teknikoak zentroko behar berrietan laguntzeko eta aholkua eskaintzeko lanbide profil berri bat eratzeko beharra planteatu zuen. Elkarrekin lan

egin behar zen, ez esku hartu soilik.

Derrigorrezko eskolatzeko adina 16 urte arte luzatzeak eta muinbakartasunaren eta aniztasunarekiko arretaren planteamendu berriek hezkuntza ekin-tzan kanpoko eta barneko zerbitzuen esku-hartzea justifikatu eta instituzionalizatu zuten (psikopedagogiako espezialitate berria ezarri zen 1991-11-29ko 1701/1991 Errege Dekretuaren bidez). Zentroa izango zen jarduketaren oinarritzko unitatea eta curriculum arrunta, berri, hezkuntzako esku-hartze oro batzeko abiapuntua; orientabide zerbitzuek laguntza eta aholkulartza teknikoak eskaintzeko ardura izango zuten. Baina ardura horrek ez du toki instituzional argirik aurkitu zentroko programa muinbakarren garapenean.

Orientabiderako esku-hartze erdia oraindik ezarpen prozesuan dagoen bitartean, Erreformaten ezarpenaren garapena arautu egin da. Hala ere, ez lege araudiaren eta ez bibliografia teknikoaren ikuspegitik ez dugu hezkuntza orientabiderako programa behar bezala artikulatuko duen esparru orokorrik aurkitu. Muinbakartasunean eta irakaskuntza pertsonalizatzeko prozesuetan aurkitu dute justifikazioa irakatsi eta ikasteko prozesuetan ahol-

kularitza eskaintzeko zereginak eta lanerako plan bereziek: Tutoretza Planak eta Ikasketa, Bokazio eta Lanbide Orientabidearen Planak nahiz Aniztasunarekiko Arretak.

Psikopedagogiako adituen esku-hartzeak zentroetarako ezarritako programa muinbakarren garapenean hartu behar duen tokia ez da behar bezala arautu eta, horregatik, baliabide horrek zentroko zeregin orientatzaileetan aholkularitza eta laguntza eskaintzeko sortua –ez du bere eremu profesionala behar bezala mugatu. Ez da erraza izan psikopedagogiako espezialistaren esku-hartzea txertatzea zentroetako orientabide sailaren barnean, instituzionalizatuta eta zentroari atxikita da goen arren.

Hezkuntza Erreformatik planteatutako hezkuntza filosofia garatzen duen araudiak, ordea, ebaluazioa hezkuntza ekintzaren kalitatea hobetzeko faktoreetako bat dela jaso du (LOGSE, IV. titulua; LOPEGCE, III. titulua; 928/1993 ED, INCE arautzen duena), baina, hala ere, ez dira garatu behar besteko oinarria duten testuinguruzko ebaluazioak, ebaluazio etnografikoak eta ekintza eta ikerkuntzako ebaluazioak. Psikopedagogiaren inguru profesionala bera hasi da ulertzen ezinezkoa dela hezkuntza orientabidea eta adituen esku-hartzea ebaluatzea, esku-hartze hori ez bada zentroko hezkuntza programan txertatzen. Hala, bada, nahiko harrigarria da Hezkuntza Erreformatik ezarpenaren garapenaren “ebaluazioa” txarra izan dela adieraztea publikoki eta hezkuntza sistema aldatzeko (ez hobetzeko) beharra sustatzea.

PPren Gobernuak LOGSEk proposatutako irakaskuntzaren muinbakartasunak sortutako Hezkuntza Sistemaren akatsak bide egokitik zuzentzea erabaki zuenean eta Hezkuntzaren Kalitate Legea agertu zenean, oraindik egituratu gabe zegoen Hezkuntza Orientabiderako Eredua, eta hezkuntza ekintzan behar bezala txertatu gabe zegoen; horregatik, aldaketa berrien egokitasuna justifikatzeko erabili nahi den arlo hori zentrotik kanpokoa eta,



bereziki, barnekoa – behar bezala ebaluatu gabe zegoen oraindik. Psikopedagogiako espezialitateari gaitasun tekniko eta teknologikoa emateko modurik egokiena praktikaren berrikuspena egitea izango da. Kontuan izan behar dugu LOGSEren printzipio psikopedagogikoen hedapenak irudi profesional honi eskatu zion konpromiso etiko eta ideologikoa –ez dugu ahaztu behar, Administrazioak proposatuta, Hezkuntza Erreformatik zerbitzura jarritako baliabide gerentzialista izan zela–.

Zer bait galdera Kalitate Legearen aurrean

Ministerioak emandako Kalitate Legearen aurrean hainbat galdera egiten dizkiot neure buruari:

- “Promozio automatikoa” deitu izan dena –gaizki deitua, gainera– saihesteko planteatzen den irtenbidea, hots, hiru ikasgai edo gehiago gaintu gabe izatean kurtsoa errepikatzea planteatzen duenak, eskola porrota murriztuko du eta ahaleginean oinarritutako kultura eta ikasle “intsumisoen” prestakuntza maila handituko du edo, aitzitik, ikasleak katalogatzea ekarriko du, batzuen gabeziak are gehiago azpimarratuz –hala, errekupeazio eta kontentsazio prozesuak blokeatuz– eta ikasle horiek hezkuntza sistematik lehenago bereiztea ekarri?

- Hezkuntza ibilbideen ezarpena, ikaslearen interesak, motibazioak eta gaitasunak kontuan izanik egingo dena, lagungarria izango al da orientabide akademikoarekin lotutako erabaki prozesuetan edo, aitzitik, hezkuntza orientabidea eta aholkularitza psikopedagogikoa ikasle horien aukerake-

taren eta sailkapenaren zerbitzura jarriko ditu?

- Hartutako neurriek (Batxilergoko Proba Nagusia, zuzendaritza funtzioaren sendotzea, bereziki) irakaslearen lanbide gaitasuna eta zentroaren autonomia sustatu nahi dituzte edo, aitzitik, erabakiak hartzeko gaitasuna zentralizatu eta arautu nahi dute, irakaslearen gaitasun demokratikoa, tekniko eta partaidetzakoa zalantzan jarriz, orain arte adostasun eta justifikazio psikopedagogikoen arabera zeuden erabakietan?

- Irakaskuntza publikoa hobetzeko eta babesteko proposamenak, ikaslearen “aniztasuna” eta “kulturartekotasuna” kontuan izanik, eraginkorrak al dira ikasleak onartzeko sistemaren arabera –sistema horrek familiaren urteko errenta, zentroan anaia-arrebak dauden, ikaslearen bizitokiaren hurbiltasuna eta, “*erregelamenduak zehazten duen kasuetan*”, ikasketa espedientea hartzen ditu kontuan–, edo, aitzitik, ikasleak zentro jakin batzuetan bilduko ditu (onak eta txarrak) –aurreiritzi sozialen arabera–, euren baldintza sozialak eta akademikoak “hezkuntza behar eta/edo lehentasunen arabera erantzuteko baliabide egokiak dituen” ikastetxe batean tokia bermatzen dielako?

- Maila akademikoa bereziki azpimarratzen da eta Lehen Hezkuntzan ikaskuntza instrumentaletan gaitasun handiagoa eskatzen da eta Bigarren Hezkuntzan, berriz, ikasgaiak gaintuztean eta azterketetan oinarritzen da; baina horrek ikasle gehienak derrigorrezko irakaskuntzan sartzerakoan da goen maila handitzeko hezkuntza sistemak dituen zailtasunak hobetuko ditu, justiziaren eta gizarteko mugikortasunaren alde edo, aitzitik, irakatsi eta

Lege honek ez du psikopedagogiak hezkuntza ekintzan duen toki instituzionala ezartzen lagunduko

ikasteko prozesuaren ikuspegi elitistagoa, ikasle onak baino sustatuko ez dituen, bultzatuko du?

- Lagungarri izango al da derrigorrezko irakaskuntzaren globalizaziorako ingelesa 3 urtetik txertatzea, bereziki kontuan izaten badugu derrigorrezko curriculum gero eta espezialitate eta hautazko ikasgai gehiagotan zati-tzen ari dela eta irakaskuntzaren personalizazioa zailtzen duela horrek? Hizkuntz murgilketen eredu buruzko ikerketek (beraz, zentroetan hizkuntz programa argiak eta ikaskuntzetarako erabiltzen den hizkuntzarekin identifikatzeko baliabide pertsonalak eta materialak eskatuz) ez al dute esaten horiek direla gaitasun egokia bermatzen duten bakarrak -hizkuntzari eta irakas hizkuntzari dagokiena- komunikazioaren eta ikaskuntzen mailan? Legeak hezkuntza prestakuntza bereziki azpimarratzen duenean, irakasleek zentroetako programekiko eta hizkuntz errealitateekiko ikusten dituzten beharretan, aukeretan eta abantailetan oinarritzen al da?

- Lanbide Heziketan, erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloen arteko "giltza" moduan "egokitze maila" ezartzeak ez al litzuke bi hezkuntza sistema paralelo sortuko, bata Lanbide Heziketarako eta bestea Batxilergorako? Maila edo kurso hori, nolabait, Batxilergoko curriculumaren laburpena bada, nolatan da egokia kasu honetan, gutxieneko ikaskuntzen curriculum orokorra arloka zatitutako programen

aurrean, arlo horiek baldin badira irakaskuntzaren "kalitatea" bermatzen dutenak? Edo Lanbide Heziketak gizartean duen onespina hobetzeko Batxilergorako egokiak diruditen azterketekin edo errebalidarekin inolako zerikusirik ez duten neurriak baliozkoak al dira, bada?

Legearen irakurketa egin ondoren, hezkuntza sistema muinbakarra eta aniztasunarekiko arreta lortzeko egindako ahalegin handiak merezi ote duen galdetzen diot neure buruari; zeregin handia izan da lan demokratikoari, sistemikoari eta hezkuntza programen arteko lankidetzari dagokienez eta gutako askok gogor lan egin dugu. Ustez abiapuntuztat bidean aurkitutako zailtasunen hobekuntzan eta berrikuntzan oinarritutako helburuak izan beharko litzuketean planteamendu batzuetan konfiantza izatera eramango al nau horrek?

Hezkuntza orientabidearen eta aholkularitza psikopedagogikoaren azterketak horien euskarri diren planteamenduak muinbakartasunaren eta aniztasunaren trataeraren printzipioetan oinarritzen direla berresten lagundu dit. Hezkuntza gizarteko zerbitzu bat dela eta gizarteko justizia ekintzak sustatzen dituela ulertzeak psikopedagogiaren esparru profesionaleko eragileen jarrera etiko eta ideologikoa zehazten du. Hezkuntza orientabidea hezkuntzarekin lotutako zientzia da eta Fernández, A. eta Saramona, J. (1998:89-523) egileen irizpideen arabera, zientzia esplikatiboa da: *azalpenarekin eta ulermenarekin eta praktikan oinarritutako erabakiak hartzearekin lotutako ezagutzak*¹, hezkuntza ekintza hobetzeko asmoz. Psikopedagogiaren espezialitatearen eskumen profesionala Kalitate Legeak justifikatzen duen Hezkuntza Erreformaren garapen praktikoari buruzko balorazio negatiboan konprometituta dago.

Nor garen eta zertarako planteatze-

ari utzi behar diogu, eta orain arte psikopedagogiaren espezialitatearen esparru profesionalean emandako planteamenduetatik -LOGSE irten zenetik- urruntzen diren beste planteamendu batzuetan parte hartu behar dugu, isilik bada ere. Lege horrek ez du psikopedagogiak hezkuntza ekintzan duen toki instituzionala ezartzen lagunduko; ga-beziak, ibilbideak eta abar egiaztatuko dituzten txostenak emateko sukurtsal hutsa izan dadin lagunduko al da, ikasleak gehiago bereiziz eta sailkatuz?

Beharbada, programa muinbakarretan, eskolako kultura elkarrekin egindako lan demokratikoen bidez hobetu beharrean edo konpentsazioko hezkuntza sistemetan inoiz sinetsi ez duten nostalgiko batzuek lege honetan beren kexen irtenbidea bilatuko dute.

Gainerakook, "politikokizuzena ez denaren" lubaketatik lan egitera eta, gure espezialitatearen ikuspegitik, gure ustez profesionalki zuzena dena lortzeko parte hartzea ez behartzeko zerbait egin behar dugu?² •

Informazio gehiago:

- DEL RINCÓN IGEA, B.: *La intervención psicopedagógica en Secundaria*, Ariel, Madril, 2000.

- ESCUDERO, J. M. (ed.); AREA, M.; BOLIVAR, A.; GONZALEZ, M. T.; GUARRO, A.; MORENO, J. M.; SANTANA, P.: *Diseño, desarrollo e innovación del currículum*, Síntesis, Madril, 1999.

- FERNÁNDEZ SIERRA, J. (koord.): *Acción psicopedagógica en Educación Secundaria: reorientando la orientación*, Aljibe, Malaga, 1999.

- GIMENO SACRISTÁN, J.: *Educación obligatoria: su sentido educativo y social*, Morata, Madril, 2001.

- INSAUSTI, M. V.: *La orientación educativa y la intervención psicopedagógica en los centros de ESO: propuesta de modelo teórico-práctico*, Argitaratu gabeko doktore tesia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2001.

- ZUFIAURRE, B.: *Comprensividad, desarrollo productivo y justicia social* (eguneratua), Icaria, Bartzelona, 2002.

¹ Cfr. MOLLÁ, R.M. (2000:12).

² M^a Victoria Insausti Nuín psikopedagogian espezialista da Nafarroan.

hik hasik

euskal hezitzaileen


harpidetza eskertzen du

30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!



hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

30 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa (Geneva, Suitza)

Ezer baino lehen, nire eskerrik beroenak atal berri hau sortzea ahalbidetu didaten guztiei, eta proiektu honek fruitu onak eman ditzan, era batera edo bestera, laguntzen ari zaizkidan kolektibo, fundazio, unibertsitate, banakako guztiei. Mila milioi esker denoi, zuen parte-hartze barik ezinezkoa bailitzateke atal honek dituen helburuak lortzea.

Munduan zehar

Ale honetan Europa mailan gero eta indar handiagoa hartzen ari den EOLE (*“Éveil au langage, Ouverture aux Langues à l’École”*) proiektuaren berri emango dugu. Orokorrean esanda, proiektu honek Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako azken mailara arteko haurrei, **hizkuntz kultura** zabala eskaini nahi die.

EOLEren **hastapenak** 80ko hamarkadaren bukaeran aurki genitzake. Garai hartan, Erresuma Batuan Eric Hawkins-en eskutik “LANGUAGE AWARENESS”¹ mugimendua sortu zen. Mugimendu honek berarekin zekartzan ideiek², urte gutxiren buruan, Europako hainbat lurraldetan³ indar handia hartu zuten, eta bereziki Grenoble-n, Louise Dabène-ren⁴ ikerketa taldean. Talde honetan, Hawkins-en inizatiba pedagogikoak jaso eta testuinguru frantsesera moldatu zituzten, *Eveil au Langage* izenaz izenpetuz. Mundu frankofonoan laster zabaldu zen iniza-

tiba. 90eko hamarkadaren hasieratik bide honetan hainbat ikerketa talde ari dira lanean, eta besteak beste, Suitzan, bai Alemaniako, bai Frantziako aldean⁵. Suitzako alde frankofonoan ikerketa talde sendo bat Genevan dugu. 1993. urtetik SENOFen⁶ eta Christiane Perregaux-ren taldea (Genevako Unibertsitatea) buru belarri ari dira lanean, hainbat proiektu martxan jarritz⁷. Neuchâtel-en ere, Eddy Roulet-en⁸ lanen ostean, L1/L2 taldeasortu zen 1990. urtean. Beren helburua, hasiera batean behintzat, ama hizkuntza frantsesa edo alemana zutenentzat Eric Hawkins-ek proposatzen zituen pedagogien⁹ egokitzapen ona lortzea zen. Hala ere, denbora aurrera joan ahala, ikerketa mugak zabaldu egin zituzten eta, 1993. Urteaz geroztik *Eveil au langage* unitate didaktikoak sortzen dituzte, ostean “kantoietako”¹⁰ eskoletan frogan jarri izan dituztelarik¹¹.

EOLEren jatorri pedagogikoak, beraz, “Language Awareness” kontzep-

¹ HAWKINS, Eric (1987)

² LANGUAGE AWARENESSek dakartzan ideietatik indarrik handiena hartu zuena, **hizkuntzaren** arloan landu beharreko zat jotzen diren sei arloen proposamena da. Eric Hawkins-entzat, aztertu behar diren sei arloko ondorengo hauek dira: komunikazioa, hizkuntzaren funtzionamendua, hizkuntzaren erabilera soziala, hizkuntza idatzia eta ahozkoa aurrez aurre aztertzea/konparatzea, hizkuntzen aniztasuna eta eboluzioa eta hizkuntzen ikasketa (HAWKINS, 1987).

³ Babylonia 2 (1999); MACAIRE, D. (1998).

⁴ Zehatzago esateko, “Centre de Didactique des Langues de l’Université Stendhal”.

⁵ Ikusirik ikasgeletan gero eta hizkuntza nahiz kultura aniztasun handiagoa dagoela, eta honek irakaskuntzan sortu duen interesa, Suitzako irakasle eta ikertzaile batzuei “Cercle de Réalisations”, “Recherche pour l’Éveil au langage” eta “Ouverture aux Langues à l’École” sortzea otu zitzaion, CREOLE bezala ezagunak. Bost ekintza nagusi burutzen dira sare honetan: 1. Gelako hizkuntza aniztasuna aztertzeo griña sortu irakasle eta ikertzaileen artean. 2. Irakasleen artean gai honen inguruko esperientziak alderatu eta elkarrekin komentatu, eta EOLEk proposatzen dituen ideiekiko eztabaida sortu. 3. Ikerketak burutu eta emaitzak zabaldu. 4. EOLEren proposamenak burutzen lagundu. 5. Beraien ikerketen deskribapenak, esperientzien analisiak eta txostenak argitaratu.

⁶ Genevako Lehen Hezkuntzako Saileko ikasle ez frankofonoen sektorea da.

⁷ Proiektu hauek burutzeko orduan harreman zuzenean egoten dira espainiar, italiar, portugaldar eta albaniar hizkuntzen eta kulturen irakasleekin. Irakasleen laguntzaz eratutako proiektu hauetan ikasleei hizkuntzari buruzko hainbat hausnarketa metalinguistiko egitea eragiten zaie.

⁸ ROULET, Eddy (1980).

⁹ Eric HAWKINSek bere proposamenak eskoletan landu ahal izateko hizkuntzen edota hizkuntzaren inguruan diharduten unitate pedagogikoekin osatutako sei liburu (+kasetak) argitaratu zituen: COMPARING LANGUAGES; HOW LANGUAGE WORKS; GET the MESSAGE!; USING LANGUAGE; HOW DO WE LEARN LANGUAGES?; SPOKEN and WRITTEN LANGUAGE.

¹⁰ Suitza 26 “kantoi”etan banatzen da. “Kantoi” bakoitzak bere legeak, irakaskuntza planak, hizkuntza ofiziala(k)... ditu.

¹¹ “Éveil aux langues” izpiritua beste adibidetako bat EVLANG proiektu europarra dugu. 1997. urtearen bukaeran europar lurralde batzuen (Frantzia, Italia, Austria, Espainia -Katalunia- eta Suitza) partaidetzaz, urte eta erdian, 8-11 urte bitarteko haurrentzat unitate didaktikoak sortzeko helburuarekin, esperientzia bat jarri zen martxan. Helburu nagusia “Éveil aux langues” bezalako proiektuek ea haurrei hizkuntzak ikasterako orduan gaitasun eta jarrera positiboak izatea eragiten ote dioten ikustea zen. Lurralde hauetan guztietan, dudarik barik, BAIETZ ondorioztatu zen.!

tuan aurki genitzakeela argi geratu da. Baina, zein helburu dituzte? Hau da, **zein dira EOLEren helburu nagusiak?** Batez ere bi helburu dira azpimarragarriak. Batetik, ikasleei hizkuntza baten edo hainbat hizkuntzen erabileraren, eraketaren eta funtzionamenduaren inguruan pentsaraztea, horrela, ikasleak gogoeta eta ikasketa objektu bihur dezan hizkuntza. Eta bestetik, ikasleengan interesa eta kuriositatea sortzea beste hizkuntzekiko, bereziki beraien inguruan daudenekiko; hala, errespetuz eta linguistikoki ikuspuntu zabalez ikus ditzaten hizkuntza horiek.

Orokorrean, beraz, "hizkuntz kultura" aberatsa eta irekia sortzen laguntzen dute EOLEko proposamenek, eta beste hizkuntza bat ikasterako orduan, erraztasun gehiago izateko prestatzen ditu ikasleak.

EOLEren aktibitateek, bereziki, hiru dimentsiotan dute eragin positiboa ikasleengan:

1. Jarrera positiboa lortu:

- kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean

- hizkuntzak ikasterako orduan

2. Gaitasun positiboa lortu hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duten:

- gaitasun metalinguistikoetan

- gaitasun kognitiboaren lanketan

3. Jakintza positiboa lortu:

- munduan hizkuntzen inguruan bizi den errealitatearen aurrean (migrazioen eragina hizkuntzan, lurraldeetako errealitate linguistikoa, hizkuntza gutxituak munduan zehar, hizkuntza vs. kultura...)

EOLEk lantzen dituen jarrera, gaitasun eta jakintza horiek *oso lagungarri* dira *ikasgelara haur etorkin berri bat heltzen denean, beste ikaslagunek harrerara ona egin diezaioten* eta, ahalik eta azkarren, taldean integra dadin. Ikasleek, jada, haur etorkin horren hizkuntzaren hainbat ezaugarri jakingo dituzte eta hizkuntz eta kultur ikuspegi anitza dute.



EOLEren helburuak lortzeko, ikasurte *osoan* zehar landu behar dira berak proposatzen dituen aktibitateak. "EOLE curriculum" ¹² oso lotuta dago hizkuntzaren irakaskuntza tradizionalaren ikuspuntuekin; baina EOLEko aktibitateek aukera ematen dute gaur egungo eskoletako curriculumeko helburu linguistikoak aberasteko ikerketa eta ezagutza landuz ¹³. Bestalde, aktibitate hauek *ez dira hizkuntza ikasgaietan soilik lantzeko*, baita curriculumeko beste ikasgaietan ere; hala nola, matematika, geografia, historia, natura... ikasgaietan.

Edonola ere, inizatiba hauek guztiak 2003ko otsaila arte hezkuntza sistematik at gelditzen ziren, hein handi batean behintzat, lurralde frankofonetan; izan ere, ez zegoen material pedagogiko egituraturik aktibitate horiek gelan lantzeko. Horregatik, 1997. urtean COROME ¹⁴ Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako unitate didaktiko batzuk sortzea erabaki zuen, **EOLEk** proposatzen eta bideratzen zituen ideien ildotik. **Unitate edo proiektu didaktiko** horiek **ondorengo hamar ezaugarriak** dituzte ¹⁵:

1. EOLEren pausoak jarraitzeko ez da curriculumean *beste ikasgai bat sortu* behar. EOLEren proposamenak *curriculumeko ikasgaien barruan landu* behar dira (bereziki hizkuntzen arloan, baina baita geografia, historia, matematika, natura... ikasgaietan). Ohiko mai-

lako ikasgaietan EOLEren pausoak sartzeak, ikasleei ikuspuntu zabala ematen die hizkuntzaren fenomenoak ulertzeko garaian, eta era berean, hizkuntzak beste ikuspuntu batez ikustera bideratzen ditu. Are gehiago, ingurune egoki batean ibilita, ohiko curriculumeko ikasgaiak hobeto ulertzen ere lagun dezakete.

2. EOLEren proposamenak *ikasurte osoan zehar* landu behar dira, hizkuntzen ikasgaiak lantzen ari garenean edo beste ikasgai batzuetan *curriculum jarraikor* bat sortuz, *zikloa* eratu eta, *eskolako hizkuntz printzipio objektibo*en gainean oinarritua.

3. EOLEko proposamenak eskolatan proban jarri zirenean, argi ikusi zen aktibitate hauek ikasleei beste hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera ematen zieten eta, *onuragarria* zirela *ikasle guztientzat*, bai elebakarrentzat, bai eleantizentzat, denei zabaldu eta aberastu egiten baitaie hizkuntzen kulturaren gainean duten ikuspegia.

4. *Aktibitate* hauek Hawkins-en (HAWKINS, E., 1987) proposamenen gainean eta, *frantses* hizkuntza, *gelako ikasleen ama hizkuntzak* eta *eskolan irakasten diren beste bigarren hizkuntzak kontuan izanik eratuta* daude. Horren helburua ikasleei hizkuntz aniztasunaren ideia barneratzea da; hizkuntza horien funtzionamendua, erabilera, berezitasunak eta ezberdintasunak... ikertzeko arra beraien barne-

¹² COROME, 1998, 22-29 or.

¹³ CAPORALE (1990), DABÉNE (1991), PERREGAUX (1995).

¹⁴ COROME: "Commission Romande des Moyens d'Enseignement".

¹⁵ De GOUMOËNS, Claire (1999)



an sortzeko, eta hizkuntzak beraien artean konparatzeko gaitasuna garatzeko.

5. Hizkuntzen ikasgairako jarrera positiboan lanketa sakona egiten da, aldi berean, *hizkuntza eta hiztun guztiekiko* jarrera positiboak landuz. *Gaitasunei* dagokionez ere, *hizkuntzak ikasteko eta ulertzeko gaitasunak* lantzen dira. Eta laguntzen die *ama hizkuntzatik hizkuntza gutxitu bat duten haurrei* beraien *autoestimua* hobetzen eta *beste ikaslagun guztiengan* hizkuntza horrekiko *interesa* sortzen.

6. Aktibitate bakoitzarekin helburu jakin batzuk lantzen dira. *Oinarri didaktiko bakoitzaren hasieran* azaltzen zaizkio irakasleari zein diren helburu horiek eta prestakuntza ebaluazio bat egiteko dira.

7. Pedagogia aktiboa dute, eta sarri askotan, *ikasleen arteko elkarreragina* eskatzen dute.

8. Ikasleei ikerketak, galdeketak, aurkikuntzak eta arazoei erantzunak ematera bultzatzen dien aktibitateak lantzen dira. Funtsean, esan genezake, EOLEko *aktibitateek hiru fase* dituztela: *egoera baten aurrean jarri, ikerketa bat egin eta sintesia*. Azken honek askotan instituzionalizazioaren papera betetzen du.

9. Irakasleei banatzen zaien material didaktikoetan erantzunak eta aktibitate horiekin zer lotu nahi den ere azaldu egiten da, beraien autoprestakuntzarako baliagarri izateko.

10. EOLE proiektua inolako arazo barik sar daiteke eskola bakoitzak urteko jarrita dituen curriculumeko helburuen barruan.

Suitzako kantoiak proiektu honekin interesatu ziren eta beraien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketa plangintzaren barruan sartu dute. *2003ko otsaila arte*, arestian esan bezala, *ez da mundu frankofonoan EOLEko aktibitateak lantzeko material didaktiko ordenatu bat egon*, baina orain, edozein irakaslek eskura dezake **material hori**¹⁶. Bi liburuk (bata 4-8 urte bitarteko haurrentzat eta bestea 8-12 urte bitartekoentzat), bertako ariketa batzuk burutzeko fotokopiatu ahal diren lan orri multzo bik, lau CDk, EOLEko aktibitateetan agertzen diren 69 hizkuntzen glosario txiki batek eta horien artetik 20ren lexikoa agertzen den beste gehigarri batek osatzen dute material hau.

EOLEren proposamenak eta unitate didaktikoak, arestian esan bezala, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako azken mailara arte begira eginak daude¹⁷. Aktibitate hauek bost tal-

de edo ziklotan bereizten dira, **ziklo bakoitzeko helburu jakin batzuk** daudelarik.

1) Haur Hezkuntza: ziklo honetako helburu nagusiak bi dira; batetik haurrari etxeko kulturatik *kultur aniztasuna dagoen gela batera ohitzen* laguntzea da; eta bestetik eskolako hizkuntza ez bada haur horren ama hizkuntza, *eskolako hizkuntza ikasten* laguntzea.

Ziklo honetan, hizkuntza bakoitzak bere baitan dituen ezaugarri orokorren berri ematen da, beti ere gelako haurren ama hizkuntzei garrantzia ematen saiatzen delarik.

2) Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. urteetan EOLEren aktibitateen helburu nagusietako bat haurrak *idazketaren munduan* sartzea da. Bestalde, hizkuntza desberdinak entzutean berarek ezagutzeko eta bereizteko gaitasuna, gaitasun metalinguistikoak, hizkuntzen arteko berdintasun eta desberdintasun fonetiko nahiz lexikalak ezagutzeko gaitasunak, beste sistema grafiko batzuk ezagutzeko gai izatea... ere lantzen dira. Alde linguistiko hauek lantzeak haurrengan eskolako hizkuntzaren/hizkuntzen funtzionamendu eta ezaugarrien inguruan gogoeta egitea sortarazten du.

3) 3. eta 4. urtean bigarren hizkuntza (eta haur batzuentzat 3. edo 4.) *ikasten hasiko* dira eskolan. Horrek haurrak lurraldeko hizkuntza aniztasunaz jabetzera eta eskolan bigarren (edo hirugarren) hizkuntza bat ikasteak duen zentzuaz galdetzera eramango ditu. Hizkuntzen arteko berdintasunez eta desberdintasunez jabetzen hasiko dira, eta denbora aurrera joan ahala, kontzientzia hartuko dute. Euskararen kasuan, esaterako, ergatiboaren erabilerara oso normala izan arren guretzat, beste hizkuntzetan ez da ohikoa.

4) 5. eta 6. urtean lehentasuna *ortografiak* eta *sintaxiak* izango dute. Beste hizkuntza batzuk aztertuko dira, ostean, eskolako hizkuntza edota be-

¹⁶ MATERIAL HONEN JABE NAIZ, norbaitek begiradaxo bat eman nahiko balio. PERREGAUX, C.; de GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D; de PIETRO, J.F. (2003)

¹⁷ Nahiz eta zikloen banaketa desberdina izan Suitzako hezkuntza sistema eta gurean, adinari dagokionez, lehen hezkuntza, Suitzan ere, 12 urterekin bukatzen da. Beraz, esan genezake, 3-4 urtetik hasi eta 12 urterarte umeentzat begira eginda daudela EOLEko proposamenak eta unitate didaktikoak.

raiek ezagutzen dituztenak aztertze konparaketa bide. Hizkuntzen arteko konparaketa horiek ikasleak hizkuntza gogoeta objektu lez ikustera bideratzen ditu. Ziklo honetan ere aztertuko da hizkuntza berean hitz egiten duten lurraldeak zein diren, lurralde batzuetan hitz egiten diren hizkuntzak, migrazioen eragina lurraldeko hizkuntzetan... Hau da, *historia, geografia eta hizkuntzen arteko lotura* landuko da.

5) **Lehen Hezkuntzako azken urteetan** helburu nagusia *hizkuntzen historia eta eboluzioa* ikastea izango da, hau da, geografia linguistikoa landuko da. Ikasleek, garai honetan, beren hizkuntz kultura aberasteaz gain, *familia bereko hizkuntzen elkar ulertzarako estrategiak* garatuko dituzte.

Beraz, **ondorio** lez, esan genezake **EOLEk** hurrei *hizkuntz kultura* zabalak eskaintzen diela, hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera, gaitasun eta jakintza positiboak sortuz. •

Oharrak:

1) Bibliografia eta www.jaling.ecml.at/ web orrian agertzen den informazioa baino gehiago nahiko balu norbaitek proiektu honetan oso interesatuta dagoelako, EOLE proiektuaren sortzaileetako bat den Christiane Perregaux-ri zuzenean e-mail bidez galde diezaioke. Christiane Perregaux **hik hasiko** atal berri honen jakinean dago eta berak eman dit bere e-mail helbidea argitaratzeko baimena; are gehiago, berak proposatu zidan. Christiane.Perregaux@pse.unige.ch

2) 2003ko otsailean argitaratu den materialaren erreferentziak:

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 1. bilduma, 2003.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 1. bilduma, Documents reproductibles, 2003.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 2. bilduma, 2003.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 2. bilduma, Documents reproductibles, 2003.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE. Glossaire des langues et Lexique plurilingue, ISBN, Neuchâtel, 2003.

Bibliografia

- BILLIEZ, Jacqueline; SABATIER, Cécile: "... mais combien y a de langues dans le monde?" in *Babylonia*, 2 (1999), 20-23.

- CANDELIER, Michel: "A quoi ça sert?" in *Babylonia*, 2 (1999), 51-54.

- CAPORALE, D.: "L'éveil aux langues: une voie nouvelle pour l'apprentissage précoce des langues" in *Lidil*, 2 (1990), 128-141.

- DABÈNE, L.: "Enseignement précoce d'une langue étrangère ou éveil au langage?", in *Le français dans le monde*, numéro spécial, Août-Septembre (1991), 57-63.

- De GOUMOËNS, Claire: "Vers la réalisation de moyens d'enseignement romands pour l'éveil aux langues", in *Babylonia*, 2 (1999), 8-11.

- De GOUMOËNS, Claire: *L'éveil aux langues à l'école. Une approche pour vivre et découvrir les langues autrement*, Recueil de textes, Juin, 1999.

- De PIETRO, Jean François: "Vivre et apprendre les langues autrement à l'école", in *Babylonia*, 2-5 (1995), 32-36.

- De PIETRO, Jean-François: "Devenir chercheur pour apprendre... ou Le voyage des mots" in *Babylonia*, 2 (1999), 42-44.

- HAWKINS, Eric: *Awareness of language: an introduction*, Cambridge University Press, Cambridge, 1987.

- JAQUET, Nathalie: "Des cours de langues... intégrés" in *Babylonia*, 2 (1999), 24-26.

- MACAIRE, D.: "L'éveil aux Langues à l'école primaire en contexte européen: Éléments de réflexion pour la formation des enseignants", in *De la didactique des langues à la didactique du plurilinguisme*, Hommages à Louise Dabène, LIDIL, Grenoble, 1998.

- MACAIRE, Dominique: "EVLANG:



une formation pour ceux qui ont donné leur langue au chat?" in *Babylonia*, 2 (1999), 59-63.

- MACAIRE, Dominique: "Il faut pendre à César ce qui est à César!" in *Babylonia*, 2 (1999), 40-41.

- MACAIRE, Dominique: "Nous parlons tous étranger", in *Babylonia*, 2 (1999), 36-39.

- MOORE, Danièle: "Eduquer au langage pour mieux apprendre les langues", in *Babylonia*, 2-5 (1995), 26-31.

- PERREGAUX, C.; MAGNIN HOTTELIER, S.: "Quand l'école accueille Pierre, Pedro, Peter et Ciel!" in *Babylonia*, 2-5 (1995), 51-55.

- PERREGAUX, C.: "L'école, espace plurilingue" in *Lidil*, 11 (1995), 125-139.

- PERREGAUX, Christiane: "Bienvenue aux lecteurs et lectrices de CREOLE" in *CREOLE*, Journal-AUTOMNE (1999).

- PERREGAUX, Christiane: "Les documents officiels: miroir des enjeux scolaires plurilingues", in *Babylonia*, 2 (1999), 69-73.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 1. bilduma, 2003.

- PERREGAUX, C.; De GOUMOËNS, C.; JEANNOT, D.; De PIETRO, J.F.: *Educación et ouverture aux langues à l'école*, EOLE, ISBN, Neuchâtel, 2. bilduma, 2003.

- ROULET, Eddy: *Langue maternelle et langues secondes: vers une pédagogie intégrée*, Hatier/CREDIF, Paris, 1980.

- ROULET, Eddy: "Peut-on intégrer l'enseignement-apprentissage décalé de plusieurs langues?", in *Babylonia*, 2-5 (1995), 22-25.

- www.jaling.ecml.at/French/Ev-lang.htm#EWII

- www.jaling.ecml.at/

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen HITZALDIAK	Soledad.Perez@pse.unige.ch; Adriana.Gorga@pse.unige.ch Tel.: 0041 22 705 96 28	Informazioa: www.multilingual-matters.com Tel.: 0044 12 75 876519
<ul style="list-style-type: none"> Ikas komunitateei buruzko jardunaldiak 	<ul style="list-style-type: none"> Gipuzkoako berriztapen proiektuen II. jardunaldiak 	<ul style="list-style-type: none"> Scolariser la petite enfance?
<ul style="list-style-type: none"> Non: GASTEIZ Noiz: 2003ko apirilaren 9tik 10era Informazioa: www.berrigasteiz.com congreso@berrigasteiz.com Tel.: 686775758 	<ul style="list-style-type: none"> Non: DONOSTIAko Aquarium-ean Noiz: 2003ko maiatzak 28, 29 eta 30 Informazioa: www.gipuztik.net 	<ul style="list-style-type: none"> Non: GENEVA (Suitza) Noiz: 2003ko irailaren 15etik 18ra Informazioa: www.agora.unige.ch/sred/ColloC jean-jacques.ducret@etat.ge.ch Tel.: 0041 22 327 42 99
<ul style="list-style-type: none"> Colloque internacional: Migrants eta droit à l'éducation: perspectives urbaines 	<ul style="list-style-type: none"> IX. Congrès international de l'association pour la recherche interculturelle 	<ul style="list-style-type: none"> Oral language of school children: acquisition, teaching, remediation
<ul style="list-style-type: none"> Non: GENEVA (Suitza) Noiz: 2003ko apirilaren 10etik 12ra Informazioa: www.unige.ch/fapse/pegec/welcome.html 	<ul style="list-style-type: none"> Non: AMIENS (Frantzia) Noiz: 2003ko ekainaren 30etik uztailearen 4ra Informazioa: www.u-picardie.fr/ARIC/congres.aric@u-picardie.fr 	<ul style="list-style-type: none"> Non: GRENOBLE (Frantzia) Noiz: 2003ko urriaren 23tik 25era Informazioa: oral2003@grenoble.iufm.fr Tel.: 0033 4 76 74 73 37
<ul style="list-style-type: none"> Third international conference on third language acquisition and trilingualism 	<ul style="list-style-type: none"> Non: TRALEE (Irlanda) Noiz: 2003ko irailaren 4tik 6ra 	

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

Lehenengoak kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak bideratzeko aukera ematen dizu. Horretarako, bi helbide hauetakoren batera idatzi besterik ez duzu egin behar:

itziamayo@msn.com edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Bigarren aukera erantzuna ematearena da. Hemen agertzen diren galderei edonork eman diezaieke erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... bi modutara: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarritz edo aldizkari-ira idatziz (**aldizkaria@hikhasi.com**).

Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

"Ikasturtea hasita dagoenean D ereduko ikastetxe batera atzerritar bat baino gehiago etorri gero, nondik has daiteke plangintza bat antolatzen? Zein izango lirakeke ikasle horiekin egin beharreko lehen urratsak?"

Lasarte-Oriako Landaberri BHI
landabhi@euskalnet.net

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

apirila

Ikastolen Elkartearen X. Jardunaldi Pedagogikoak: ahozko ikasgelan

Euskal Herriko Ikastolen Elkartek X. Jardunaldi Pedagogikoak antolatu ditu ikasgelan ahozko ikasgelan duen hutsunea betetzeko asmoz.

Mendebaldeko hezkuntza sistema askori buruzko txostenetan egungo gazteen ahozko hizkuntza gaitasuna eskasa dela agertu da, eta nola ez, eskolari leporatu zaio errua. Hizkuntzak eta komunikatzeko ahalmenak duen garrantzia ikusirik, ikasgelatan lantzeko zenbait proposamen luzatuko dira bi saiotan: batetik euskal lurraldetik kanpoko esperientziak ekarri eta bestetik, Euskal Herrian bertan buruturikoen berri emanez.

Noiz: Maiatzaren 14, 15 eta 16

Non: Europa Jauregian (Gasteiz)

Maiatzak 14, asteazkena

9:00-9:30 Harrera. Dokumentazio banaketa.

9:30-10:00 Harrera ofiziala: Pedro Aranburu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria), J. Iñaki Etxezarreta (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren zuzendaria), Joseba Aginagalde (Arabako Ikastolen Federazioaren zuzendaria) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariak.

10:00-11:15 *"Ahozko hizkuntza eta lanketa Europako zenbait hezkuntza sisteman"*, Manuel Alvarez (Europako hezkuntza administrarien Forum Europarreko lehendakari ohia Espainian eta European).

11:15-12:30 *"Ahozko hizkuntza-ren lanketa, bereziki euskara bigarren hizkuntza dutentzat"*, Uri Ruiz Bikandi (EHUko Bilboko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea).

13:00-13:30 Iritzi trukaketa

15:45-18:15 *"Behingoz, Hitzegin"* saio praktikoa, Claude Lafitte eta Peggyu Saudax (irakasleak eta GFENko partaideak) eta Michel Ducom (irakaslea

eta GFENko idazkari nazionala).

Maiatzak 15, osteguna

9:30-10:45 *"Ahozko hizkuntza ikastea eta irakastea hasierakoak ez diren hezkuntza mailetan"* (10-18 urte), Monserrat Vila (Bartzelonako Unibertsitate Autonomako Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea).

10:45-12:00 *"Ikasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi"*, Marie-Lle Rispail (NICEko IUFM eta egoera eleanizetan aditua Grenobleko LIDILEM laborategian).

12:30-13:30 Iritzi trukaketa

15:45-17:00 *"Erreferentzi marko europar bateratua"*, James Francis Heyworth (EAQUALSko idazkari nagusia eta Hizkuntza Modernoen Europar Zentroko aditu eta aholkularia).

17:00-18:15 *"Ahozko hizkuntza ekoizteko hainbat ariketa"*, Erich Huber (EHUko Ingeles eta Alemaniar Filologia Saileko irakaslea).

Maiatzak 16, ostirala

9:30-10:45 *"Ahozkoa ebaluatu testu ikuspegiaren oinarrituta: eredu praktikoa NICEko hainbat irakaslerekin"*, Marrielle Rispail (NICEko IUFM eta egoera eleanizetan aditua Grenobleko LIDILEM laborategian).

11:15-13:15 *"Ahozko ikasgelan baina nolako eta nola"* mahai ingurua, Marielle Rispail, Itziar ELortza (Ikastolen Elkarteko hizkuntz aditua eta ikas-materialgintzaren hizkuntza arduraduna), Itziar Idiazabal (EHUko Euskal Filologian katedraduna) eta Arantza Ozaeta (HUHEZI Mondragon Unibertsitatea).

13:15-13:30 Ondorioak eta bukera ekitaldia. Pedro Aranburu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria), Erramun Osa (EHIKren hizkuntz proiektuko arduraduna) eta Kike Fernandez de Pinedo (X. Jardunaldi Pedagogikoaren koordinatzailea).



Informazio gehiagorako:

Arabako Ikastolen Federakundea

Tel.: 945 233 355

Faxa: 945 135 321

E-posta: aif@ikastola.net

Getxo Linguae 2003 jardunaldiek "Ebaluazio Hezigarria egoera eleanitzetan" landuko dute

Badira hiru urte Hezkuntza Sailak Hizkuntz Prozesuetako programa bideratu zuenetik, eta horrekin Hizkuntz Proiektak zein Hizkuntzen Trataera Bateratua jorratzeko esparrua finkatuta geratu da.

Ildo horretatik, Getxoko Berritzeguneak *Getxo linguae* jardunaldiak antolatu ditu hirugarren aldiz, aurtengoan bereziki egoera eleanitzetan egin beharreko ebaluazio hezigarria tratatzeko eta irakasleen artean gogoeta eta koordinazioa bultzatzeko asmoz.

Dakigunez, hizkuntzaren irakaskuntzak komuniazio gaitasuna lortzea du muga, eta horretan lagundu ahal ditutelakoan, hiru helburu hauek ezarri dira aurtengo jardunaldietan:

1. Ebaluazioren inguruko prestakuntza erraztea.
2. Esparru horretan dauden esperientziak ezagutzera ematea.
3. Ikasgelan ebaluazioa gauzatu ahal izateko baliabideak eskaintzea.

Lekua: Algortako Igeretxe Hotela

Egitaraua

Maiatzak 21, asteazkena

Goizean

9:00-9:15 Material banaketa

9:15-9:30 Aurkezpena

9:30-11:00 "*La evaluación formativa en el área de lenguas*", Paco Luna.

11:00-11:30 Atsedena

11:30-13:30 "*El portfolio europeo*", Daniel Cassany.

Arratsaldean

15:00-16:15 "*Developmental and summative evaluation: are all these two approaches compatible*", Phil Ball.

15:00-16:15 "*Nola ebaluatu gaitasun eleanitza?*", Pili Sagasta eta Matilde Sainz.

16:30-18:00 Mahai ingurua: "*¿Hasta qué punto la evaluación formativa contribuye a capacitar para las pruebas de evaluación externa?*".

Maiatzak 22, osteguna

Goizean

9:30-11:30 "*La evaluación formativa. De la gramática a un enfoque comunicativo*", Felipe Zayas.

11:30-12:00 Atsedena

12:00-14:00 "*Gaitasun diskurtsiboa: testuen kalitatea deskribatzeko tresna*", Roberto Mielgo.

Arratsaldean

15:00-16:00 "*Évaluer son apprentissage selon des références européennes*", Annette Maxime.

16:00-17:00 "*Teaching students to evaluate their own work*", Larry Muies.

15:30-17:30 Esperientziak

Informazio gehiagorako:

Getxoko Berritzegunea

Tel.: 94 480 60 05

Faxa: 94 480 29 86

E-posta: pilikazuriaga@irakasle.net

Euskal Herriko ikastoletako haurrek Egunkari aleak egin ez adierazi zieten elkartasuna kazetako langileei



Martxoaren 13an Euskaldunon Egunkariarekin bat eginez, Euskal Herriko ikastoletako ikasleek Egunkari aleak egin zituzten, eta martxoaren 17an Egunkariako langileei eman zizkieten. Modu honetara adierazi zieten ikasleek egunkariari elkartasuna, euren sormena erabiliz eta ekarpen pedagogikoa eginez. Egunkariako langileek egindako lana eskertzearekin batera, etorkizuneko kazetarietzako atea irekita dituztela jakinarazi zuten.

Argitalpenak



Heroia izan nahi zuen mutikoa
Sylvain Trudel
Ibaizabal

Paper txuriak bildumako sail urdinean, 8 urtetik gorakoentzat idatzirik liburu da. Handitzen denean Justizigile Hegalaria bezelako heroia izan nahi duen Luis haurrea da protagonista. Bere helburua betetze bidean, jantzi berezi bat eskatuko du Gabonetan eta pertsona oso berezi batek bere nahia betetzen lagunduko dio •



Ale berdeak
Txomin Peillen
Dakit

Gure ezpainetan irribarrea azalarazteko botika multzoa da. Umorea bizteko hamazortzi pilila eskaintzen dizkigu. Garai batean Euskal Herrian sexuaren aipamena debekatua zegoen eta orain, berriz, gai erakargarriena dugu. Txominek bi mutur horietaz barre egin nahi du, ez baita ez bata ez bestea berarentzat, eta hori irakurleari berdin izatea espero du •



Kapak eta Letaginak
Alain Ayroles eta Jean-Luc Masbou
Jean Francois Sauré

Abenturazale ausartenentzat eginko komikiaren bigarren ekitaldia dugu hauxe. Hidalgo espainiarra, kortsario bereberea, Aitorren seme frantsesa eta untxia altxorraren bila nabigatzen ari dira Tangerinoen uhartera, non hondoratutako itsasontziak eta itsas munstroak ibiltzen diren. Lagun kementsu hauek etsai alai baino kupidagabeak izango dute aurrez aurre: piratak! •



Birraitonaren museoa I
Ikastolen Elkarte

Lehen Hezkuntzarako sorturiko Txanela Proiektuaren barnean, 1. mailarako CD-ROM interaktiboa da. Haurrari museoa osatzeko eskatzen zaio modu ludiko batean, eta era berean, euskal tradizioaz gozatuz. Errepikapena eskatzen duten hainbat prozedurekin aho euskararen ulermena erraztu eta praktikatzeko bidea ematen du. Ikasgelatik kanpo ere erabilgarria da izaera ludiko hori dela eta •




Nazioarteko hezegune garrantzitsuen zerrenda
Eusko Jaurlaritza

Ramsan hitzarmenaren barruan Euskal Herriko hezegune aberats hauen berri ematen du irudi erakargarri eta argibide ulerterraz bidez: Urdabai, Laguardia, Txingudi, Ullibarri-Ganboa, Salburua eta Gesaltza Añanako gatzagak. Guztiona den ondare hauen edertasuna erakutsiz, ekosistema defendatzeko eta zaintzen jarraitzeko gonbitea luzatzen du •



Jules Verneren abenturarik onena
Jules Verne
Ttartalo

10 urtetik gorakoei zuzenduriko liburu hau idazle unibersalei eskaini bilduma bereziaren lau liburutako bat da. Lau lan ospetsu aurkitu ditzakegu bertan: Munduari itzulia 80 egunetan, Bost aste globoz, 15 urteko kapitaina eta 20.000 legoa itsaspeko bidaiari. Gazetxoek kolorez beteriko bidaiari harrigarriak egiteko aukera izango dute •



IV. Hik Hasi Udako Topaketak

Uztailaren 1, 2 eta 3an burutuko dira Donostian

Aurten, **IV. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak** burutuko dira. EHU-ko Hezkuntza eta Teoria sailarekin batera antolatuta, 36 ikastaro jarriko dira interesatuen eskuragarri.

Aurrekoetan bezala, sailka antolatu ditugu eta ikus daitekeenez ikastaro berri ugari ageri da.

Teoria:

- Jerome BRUNER: hobetu al daiteke adimena?

Informatika:

- Gutxieneko informatika ez da kigunontzat

- Klik

- Web orria

- Power Point

- "SPC" hizkuntza ordenagailuaren bidez

- Ipuinak bizi-bizian

Espresioa:

- Alexander teknika

- Plastika adierazpena

- Euskal dantzak

- Antzerki KLOWN a

- Antzerkia nerabezaroan

- Euskaraz aritzeko jolasak

- Jolas kooperatiboak

- Euskal Soin Jarduerak (ESJ)

- Psikomotrizitatea
- Haurrentzako masajea
- Musika hezkuntza hastapenak herri kulturetan

Hizkuntza:

- Ahozko narratibatik abiatuta pozik eta gustura irakurtzera

- Literatur txokoa: Ramon Sainzarbitoria, Gabriel Aresti eta Xabier Montoia

- Idazkeratxarra? Ez, eskerrikasko

- Ahozko hizkuntzako trebaketa prebentiboa

Bestelakoak:

- Adimena berezko duten haurrak (supergaituak)

- Matematikaren historia eta filosofia

- Heriotza heziketan: galerak zentzu hezitzailean

- Gogo erabilketa

- Historiaren txokoa: gizarte zientzietarako laguntza didaktikoak: Arkeologia eta Historiaurrea

- Artearen txokoa: Jorge Oteiza

- Eskola baratza ekologikoa

- Zinema Eskolan

- Gaur egungo eskola sistema eta irakaslearen rol aldaketa

- Ikaste komunitateak

- Euskal kultura tradizionala
- Hezkuntza aniztasunean: programazioaren bidez erantzunez

- Heziketa esperientziala: hezitzaileen sentsibilitate pedagogikoen lanketa

- Hezkuntza ebaluazioa

Matrikulazio epea:

Maiatzaren 1etik 23ra izango da.



Martxoaren 25, 26 eta 27an *Etengabeko ikaskuntzari buruzko I. Nazioarteko Biltzarr* burutu zen Bilbon.

Bertako eta atzerriko 21 hizlarik parte hartu zuten: Kanada, Austria, Herbehereak, Italia, Amerikako Estatu Batuak, Erresuma Batua, Danimarka, Alemania, Finlandia eta Euskadi. Guztira 614 parte-hartzaile egon ziren lehenengo biltzar honetan.

Aurretik emandako urrats garrantzitsuenak

I. Nazioarteko Biltzar hau ez da eze-rezetik sortu, aurretik hainbat pauso eman ondoren baizik. Hauek dira aurrekariak:

1- 2000ko martxoa: etengabeko ikaskuntza lehentasunezko zat jotzen du Europako kontseiluak Lisboan.

2- 2000ko urria: Europako "Etengabeko ikaskuntzari buruzko memorandum" argitaratu zen.

3- 2000ko abendua: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Etengabeko ikaskuntzarako dekretua onartu zuen.

4- 2001: Hezkuntza Sailak Etengabeko ikaskuntzarako Sailordetza sortu zuen.

5- 2003: Hezkuntza Saila Etengabe-

Etengabeko ikaskuntzari buruzko I. Nazioarteko Biltzarr



ko ikaskuntzari buruzko liburu txuria prestatzen ari da. Orain, eztabaida fasean dago eta maiatzean argitaratuko da.

Biltzarraren ondorioak

1- Etengabeko ikaskuntzaren finantzazioa

- Etengabeko ikasketek dirua suposatzen dute, ezartzen den helburuaren arabera aldakorra dena.

- Orain arteko inbertsioa handia izanez bada ere, aurrera begiraigoera nabarmena izango duela aurreikusten da.

- Instituzioek inbertsioa egin behar badute ere, entitate pribatuek eta interesa duen jendeak bere diru ekarpena egitea beharrezkoa izango da.

- Gastuaren eta etekinen arteko erlazioak etengabeko ikaskuntzaren etorkizuna baldintzatuko du.

2- Hainbat lurraldetan egindako esperientziak

- Toki bakoitzeko beharrei eta ezaguerrii zor zaien errespetua.

- Koordinazioaren garrantzia.

- Gobernuen inplikazioaren beharra.

- Helburu partekatuen esistentzia.

- Hausnarketa ekintzaren aurrebalantzea.

Zentzu honetan egindako ekintzetan behatuz, zera ondoriozta daiteke:

- Galesen eta Euskadin ikuspegi orokorrago batekin jokatzeko egiturak sortu dira garatzeko tendentzia dago (ELW eta Euskadi 2000 hiru).

- Herbeheretan eta Austrian, aldiz, norbanakoaren garapen pertsonalean, kulturean eta sozialean jartzen dute indarra.

3- Ezagutzaren gizartea eta informazio eta komunikazio teknologiak

Etengabeko ikaskuntza eskaintzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

- Eduki eta prozesuei zor zaien arreta aintzat hartzea.

- Eskaintza zabala eta anitza egitea.

- Sareak erabiltzaileak behar ditu.

- Denontzat baliagarria den instrumentua da.

- Eskaintza bateratuak, baina ez nahastuak egitea komeni da.

- Bizian eta zuzen-zuzenean egin beharrezkoa da.

- Sinergiak bultzatu egin behar dira.

4- Etengabeko ikaskuntza eta integrazioa

Etengabeko ikaskuntzak denontzako izan behar du. Kultura bat da, eta kultura berri honek berarekin ekarri behar du:

- Prestakuntza hobeto bizitzeko balioko behar du. Pertsonen arteko gertutasuna bultzatu beharko luke, ez urruntasuna. Hau da, kohesio soziala bilatu beharko luke.

- Gizartea eta instituzioen arteko elkarlana eskatzen du. Onura sozialak denontzat izan behar du.

- Erroka kolektiboa izatea. Bai finantzaketa aldetik, bai zabalkundean eta baita sentsibilizazioan ere.

Praktizismoa edo kultura. Bigarren Hezkuntza Bilbon, Erregimen Zaharraren amaieran



Txomin GANBORENA

EHko ikertzailea

Bigarren hezkuntza –hezkuntza sistemaren barnean izaera berezia duen estadio edo maila gisa– XIX. mendean sortu zen, eta erregimen liberala sendotzearekin eta 1812an Cadizen gorteak aldarrikatu ondoren espainiar hezkuntza sistema abian jartzearekin bat dator. Lehenengo Espainiak bizi zuen gerra egoerak eta, ondoren, eze-gonkortasun politikoak eta Lehen Gerra Karlista lehertzeak hezkuntza aparatatu berria abiaraztea eta institutu berriak ezartzea mende horretako 40ko hamarkada arte atzeratu zuten ia.

Bigarren hezkuntza *modernoak* XIX. mendeko estatu liberalarekin

duen lotura estuak ez du esan nahi Erregimen Zaharrean lehen hezkuntzaren ondorenerako hezkuntza zentrorik ez zegoenik. 1845ean Pidal Plana argitaratu arte eta bigarren hezkuntza *berriaren* zentro uniformatzaile gisa katean Probintzia Institutuak ezarri arte, lehen letretako eskolen eta Unibertsitatearen arteko zubi lana egiten zuten hezkuntza zentroen aniztasunak hezkuntza sare zabala adierazten zuen, eta izaera profesional sendoa zuten zentroekin batera –nautikako eskolak, marrazkiko eskolak edota merkataritzako eskolak–, unibertso unibertsitarioan sartzeko behar zen latina irakasten zuten katedrak eta ikastetxeak zeuden –orientabide klasikoagoa eta humanistikoagoa zuten eskola hauen curriculumek–.

Bizkaian, bigarren irakaskuntzako hezkuntza errealitateak Espainiako gainerako lurraldeen antzeko ibilbidea izango du, denboraren ikuspegitik atzeraxeago joango dena batez ere Euskal Herrian lehen Gerra Karlistak izan zuen gogortasunaren ondorioz– eta, horrekin batera, aldaketa prozesu batean sartuta zegoen gizarte haren ezaugarrietara moldatuko zen, modernizazio industrialaren bidean hezkuntza maila honi arreta egokia eskatuko baitzion.

Bilbo, 1800. Itsasoa, negozioak eta latina

XIX. mendean Bizkaian Bigarren Hezkuntzak bizi zuen egoera aztertze-ko, behar-beharrezkoa dugu, gune ekonomiko eta komertzial historiko garrantzitsua izan arren, artean II. Gerra Karlista amaitu ondoren biziko zuen leherketa industrial, ekonomiko eta sozial ikaragarriarekin jasango zituen aldaketa sakonen zantzurik ez zuen Bilbo hartara jotzea.

Garai hartako ziurgabetasun politiko eta ekonomikoak hirian halako atzerapen bat adierazi zuen. XIX. mendean hasieran Bilbo nahiko hiri txikia zen, 10.000 biztanle ingurukoa, eta bertan bizimodu tradizionala eta modernitate kosmopolita –Europako portu komertzial garrantzitsua zenez halaxe baitzen– eskutik zihoazen; merkataritza izaera handiko hiribildu bihurtuko zen, hiri tradizionalen eitekoa, hala ere. Artean planteatu gabe zeuden politika anexionistak eta hiri garapena. Bilbo 1800ean krisi eta haustura prozesu batean zegoela esan daiteke, eta honek berregituratzera bultzatuko zuen eta, aldi berean, behin betikoz egungo Bizkaiko bizimoduaren eragile den hiribildua agerraraziko zuen.

Asalduren garai horrek planeamendu berriak bultzatu zituen eta, gainera, herrialdearen egoera hobetzeko xedez, zenbait proiektu abiarazi zituen. Adibiderik onenetarikoa Euskalerriren Lagunen Elkartea da, ia Erregimen Zaharren amaiera arte Euskal Herrian garatuko ziren kultur eta hezkuntza jardueren sustatzaile nagusi izan baitzen hau. Herriaren erudizioa bultzatzeko ilustratuek erakutsi zuten gogoak eraginda, Bizkaian lehen letretako bost eskola sortu ziren, horien artean nagusiak Bilbokoa eta marrazketako doako akademia bat.

Hala eta guztiz ere, Bikaia, Gipuzkoa eta Arabako probintzien artean Bilbo ez zen gune nagusi bihurtu. Gehiago nabarmendu ziren Kotsulatuak –gero Merkataritza Junta bihurtuko zen–, hiriburuko Udalaren babesean eta Diputazio Nagusiak (hau ere Bilbon baitzegoen) lagunduta, proiektatutako ekintzak. Kotsulatuaren eta udaleko eta probintziako botere organoen in guruan bildu zen burgesia komertzialak bultzatu zuen irakaskuntzako establezimenduen sorrera, produkzio gune nagusietara zuzenduta: merkataritza, nabigaziora eta industriara. Sozietate Ekonomikoekiko askea zen jarduera bat nabarmendu zen horrela, haiek, nekazaritza eremuetako handiki eta lurjabeak buru zituztela, hirietan ez baitziren indar handiz ezarri. Izan ere, merkataritza izaera handiko burgesia aktiboa baitzen nagusi hirietan eta burgesia horrek bere interesen alde egiten baitzuen¹.

Katedrak, Eskolak eta Ikastetxeak. Etorkizuneko burgesia heziz

Beraz, 1845ean Bizkaiko Institutua sortu arte, Jaureerrian bigarren hezkuntzaren egoera Erregimen Zaharreko sakabanaketa instituzionalaren irizpide berberaren ondorio zen. Hauek bi eremutan bereizten ziren, gero bigarren irakaskuntza berriaren bidez bateratu-

ko zirenak: alde batetik, latinarekin lotutako ikasketak eta gramatikako eta humanitateetako ikastetxeak; eta, bestetik, irakaskuntza teknikoak. Ikasketa klasikoek dagokienez, ondoren adierazten diren ikastetxe hauek zeuden: Bizkaiko Santiago Ikastetxea, Bizkaiko Humanitateen Ikastetxea eta, azkenik, latinarekin lotutako udal katedrak. Irakaskuntza teknikoak Nautikako Eskolaren, Marrazketako Eskolaren eta Merkataritzako Eskolaren esku zeuden.

Latinarekin lotutako udal katedrak: bigarren hezkuntzari buruzko historiografiak XVIII. mendean amaieran eta XIX.aren hasieran hezkuntzaren barnean horrelako katedren gehiegikeriaz eta ugaritzeaz hitz egin izan digu beti, eta baita une haietako ideia liberalekin bat zetorren irakaskuntza moderno bat ezartzeari inolako mesederik egiten ez zion ohitura hari irtenbidea emateko gobernuek egindako ahaleginez ere. *Domineak* edo ho-

Erregimen Zaharrean bi irakaskuntza mota bereizten ziren: latinarekin lotutako ikasketak eta gramatikako eta humanitateetako ikastetxeak; eta irakaskuntza teknikoak.

rrelako katedrez arduratzen ziren latin irakasleak ez zeuden oso ondo prestatuta eta metodo pedagogiko zaharkituak erabiltzen zituzten; latineko ikastetxeek prestigioa erabat galdu zuten garai hartan eta, gizartearen baztertuta zeudenen kasuan, gaizki bada ere latina ikasiz beren eliz karreran leku bat bilatu nahi zutenentzat edo oinarri sendo samar bat zuten lanbide liberaletan sartu nahian zebiltzanentzat gizartearen gora egiteko mekanismo bilakatu zen².

Deskribatu denaren aurrean, Espainiako gainerako lurraldeekin konparatuta, Bizkaia latineko katedra gutxi zituen. Jaureerrian kokatzen ziren horrelako zentroak zortzi ziren guztira, eta 390 ikasle hartzen zituzten. Aukeratuak irakaslea herrikoa bertakoa izan ohi zen eta, halakorik ez bazegoen, aukeratu probintziakoa. Hauen kalitatearen eta gaitasunari dagokionez, Bilboko kasuan zehazki, katedra hauetatik zetozen irakasleak izan ziren latineko eta erretorikako eskolak emateaz arduratu zirenak inauguratu berria zen Bizkaiko Institutuan (1847).

Zentro horietan irakaskuntza doakoa zen eta horixe zen herritar xeheak unibertsitatean sartu ahalizateko behar zituen jakintzak barneratzeko zuen hurbilketa modu bakarra.

Bizkaiko Santiago ikastetxea: Bizkaiko Institutuaren aurrekarietako bat izan zen ikastetxe hau 1816an ezarri zen, Abanton –jesuiten San Andres ikastetxeak utzitako tokia hartu zuen–. Kotsulatuak ikastetxe honen finantzaketan parte hartu zuen 6.000 errealekin, baina betiere Udalaren, Diputazioaren eta Kotsulatuaren beraren artean aukeratuak 6 mutikori pentsio bidez lagundu behar zitzairen. Handik lau urtera, 1820an, Udalaren babesean, Bidebarrieta kalera aldatu zen eta Bilboko Hezkuntza Ikastetxea izena hartu zuen. Ikasleen artean bi mota hauek bereizten ziren: kanpokoak, ikastetxera soilik eskola hartzera joaten zirenak,

¹ VIÑAO FRAGO, A.: *Política y Educación en los orígenes de la España Contemporánea: Examen especial de sus relaciones en la enseñanza secundaria*, Siglo XXI, Madrid, 1982, 88. orr.

² GIL de ZÁRATE, A.: *De la Instrucción Pública en España*, Imprenta del Colegio de Sordomudos, II. liburukia, Madrid, 1855.

eta barnekoak, eskolak hartzeaz gain barne erregimena bete behar zutenak. Urtero laguntza ematen zitzaien 6 ikasleek kasuan izan ezik, gainerakoetan irakaskuntzak ez ziren doakoak.

Ikastetxe honek bere zereginari utzi egin zion lehen karlistaldian, izan ere, 1834tik³, berriro bekadunen gaiaz hitz egin zen urte horretatik, ez baitaukagu ikastetxe honen berririk. Alcalá de Henaresko Administrazioaren Artxibo Nagusian aurkitutako zenbait dokumentutan honen erabateko desagertzeaz hitz egiten da 1840an⁴, eta bertako irakaskuntzak Bizkaiko Humanitateen Ikastetxeak ordeztu zituen.

Bizkaiko Humanitateen Ikastetxea: ikastetxe bat itxi ondoren beste bat planteatzeko ohituraren ildotik, Bizkaiko Humanitateen Ikastetxeak bere ibilbideari 1840an ekin zion, Santiago Ikastetxearen lekukotasuna hartuta. Bertan Lehen Hezkuntzako ikasketak sakontzen ziren eta janzteko irakasgaiak eta zenbait hizkuntzen ikasketak sartzen ziren, Filosofia batxilergoari zegozkion ikasketak eskaintzea-



Bilboko portua 1790. urte inguruan.



San Anton, Bilbo, 1800. urtean.

rekin batera. Azken hauek hiru ikasturteetan egiten ziren eta ikasgaiak horrela banatzen ziren: Matematika, Logika eta Gramatika Orokorra lehen urtean; lehen mailako irakasgai berberak eta Fisika Esperimentala eta Geografia bigarren urtean; eta Erljioa, Etika, Historia eta Erretorika hirugarren urtean. Santiago Ikastetxean bezala, hemen ere pensio sistema bat zegoen eta barneko ikasleak hartzen ziren. Diziplina kontrol zehatza bete behar zuten hauek.

Bizkaiko Diputazio gorenaren babesean eta oniritziarekin, ikastetxe hau izan zen probintzia institutua ezarri aurretik orientabide humanistiko-klasikoa zuten zentroen azken aurrekari nagusia. Humanitateen Ikastetxeak bigarren irakaskuntzako behin betiko erakunde berri bat bultzatu zuen horrela: Bigarren Hezkuntzako Bizkaiko Institutua.

Nautikako Eskola: aldi berean Bizkaiko Jaurreiak, Bilboko Udalak eta Kontsulatuak parte hartuta, 1739ko Bartzar Nagusietan Hiribildurako Nautikako Eskola bat sortzea erabaki zen⁵. Eskola horretako lehenengo zuzendaria Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide zen José Ibáñez de la Rentería, izen handiko fragata kapitaina, izan zen. XIX. mendean, 1836. urtean zehazki, eskola lokal berri batera aldatu zuten, eta Merkataritzako Errege Batzarrarena

zen lokal hori. Eta azkenean erakunde honek ordaindutako gainerako irakaskuntzek bete behar zuten barne erregimenaren azpian geldituko zen hau ere. Ikasketa hauen curriculum osatzen zuten irakasgaiak Aritmetika, Geometria, Trigonometria, Kosmografia, Aljebra, Geografia eta Nautika praktikoa ziren.

Irakaskuntzak doakoak ziren, eta bertan sartzeko eskatzen ziren baldintza bakarrak irakurtzen eta idazten jakitea eta kalkuluko oinarrizko lau errege-lak jakitea zen. Kanpoko ikasleak ere onartzen ziren, betiere babesle ziren korporazioen oniritzia lortzen bazuten. Handik urtebetera Bizkaiko Institutua eratu zenean, irakaskuntza hauek *irakaskuntza berezietan* barnean txertatuta gelditu ziren.

Marraketako Doako Eskola: eskola honek 1774an zabaldu zituen atak eta 1804an utzi zion bere jarduerari. Eskola Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen tutoretzapean zegoen eta Posta kalean zegoen kokatuta. Ikasturte bakoitzean batez beste 95 ikasle izaten ziren, eta irakasle bakar baten tutoretzapean aritzen zen talde hori. Eskolari bizirik eusteko zailtasun ekonomikoaren ondorioz eta diziplina arazoek bultzatuta, XIX. mendean itxi zen azkenean. Kontsulatua beratu berriro zabalitzen ahalegindu zen, baina 1807an Go-

³ BIZKAIKO FORU ARTXIBOA, Instrukzio Publikoaren sekz., 74. erreg.: "Expediente relacionado con un Informe del Colegio, Reglamento y el gasto anual".

⁴ ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO NAGUSIA, Hezkuntza sek.. Leg., 6881.

⁵ JUNTAS GENERALES de BIZCAYA, 1739 (ekainak 16), 1740.13. or.



Garai hartako azterketa bat egiten epai-mahaiaren aurrean.

doyk⁶ ezezkoa eman ondoren, ezinezkoa izan zen berriro zabaltzea, 1818an Kontsulatuaren doako katedrak ezarri ziren arte.

Kontsulatuaren katedrak. Merkataritzako Eskolaren jatorria: katedra hauen sorrera ekimena 1800ekoa da, Bilboko Kontsulatuak Matematikako, Geografiako eta Hizkuntzako eskola batzuk sortu ahal izateko bitartekoak proposatzeko batzorde bat izendatu baitzuen urte horretan. Frantziarren okupazioak eta gerra egoera normaldu ondoren Madrilgo Gorteen aldetik sumatu zen laguntza faltak eskola horiek abian jartzea atzeratu egin zuten 1817 arte, azkenean Kontsulatuak matematika, marrazketa, frantsesa eta ingelesa irakasteko eskola batzuk bere kabuz, gobernu zentralaren laguntzarik gabe, antolatzea erabaki baitzuen.

Eskolak denborarekin oso maila altua lortu zuen eta Bilboko ikasketa zentro ospetsuenetariko bihurtu zen. Ikasleak Bilboko merkataritzako burgesia txikiaren semeak ziren, bankuen eta hizkuntzen esparruan prestakuntza bila arizirenak beren negozioak hobeto kudeatzeko. Katedra horiek Insti-

tutua ezartzeak adierazi zuen prozesu bateratzaileak hartu zituen bere baitan gero, eta handik urte batzuetara probintzia zentroan eskainiko ziren *merkataritzari aplikatutako* ikasketak osatu zituzten. Nautikako Eskolan eta Marrazketako Akademian bezala, hemen ere irakaskuntza doakoa zen.

Horrela, beraz, bi norabideko ibilbide bat nahiko finkatuta gelditu zen eta bakoitzak bere bidea hartuko zuen, bere gogoen eta ahalmenaren arabera. Irakaskuntza batzuk klasikoak ziren, jakinduria sustatu nahi zutenak, ikasleak Unibertsitatean sartzeko prestatuko zituztenak eta klase aberatsenei zuzentzen zitzaizkienak. Eta beste irakaskuntzek izaera praktikoagoa eta erabilgarriagoa zuten, eta artisauei eta lan munduaren errealitatean horrenbeste baliabide ez zituzten klaseei zuzentzen zitzaizkien.

Lehenengoak matrikularen diru sarrerei eta barneko ikasleen kuotei esker finantzatzen ziren, eta bigarrenak interes publikoari esker, hauek gero beren etekina aterako baitzuten eskola horietatik irtengo ziren teknikarien ea pertuen promozioen bidez.

Bilboko hezkuntza errealitatearen azterketa labor honek argi eta garbi erakusten digu herri, udal eta probintzia organoak zein interesek mugitzen zituen, irakaskuntza publikoari dagokionez bederen.

Merkataritzaren esparruko burgesiak zuzenduta, botere eremu desberdinek nabarmen teknika berriekin lan egingo zuten etorkizuneko langileak prestatzeko establezimenduen sorrera sustatu zuten, bakoitzak bere esparruan: nabigazioan, industrian eta merkataritzan. Ikasketa klasikoek beti izaera pribatua zutela egiaztatu dugu, eta latineko udal katedrak izan ezik, gainekoak beti ordainpekoak ziren. Ikasketa horiek egitea pentsatzen zuenak unibertsitatean sartzeko asmoa zuela ikusten da argi eta garbi eta, beraz, matrikula eta pentsio gastuak ordaintzeko gai zen. Aldiz, izaera teknikoa zuten irakaskuntzak doakoak izan ziren eta ikasle ugari izan zituzten beti; zenbait kasutan, zerrendetatik kanpo gelditu ziren ikasleak, zentroek eskaera osoari erantzun ahal izateko gaitasun nahikorik ez zutelako. •



Bilbo 1800. urtean.

⁶ RUIZ DE AEL, M.J.: *La Ilustración Artística en el País Vasco. La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y las Artes*, Arabako Foru Aldundia, 201. or, Gasteiz, 1993.

IV. Baliabide Pedagogikoen gida

prestatzen ari gara

Interesatuok jar zaitetze gurekin harremanetan



Tel: 943 371 408

E-posta: gida@hikhasi.com

hh

hik hasi

udako topaketak



36 ikastaro goizez. Saio libreak arratsaldez

BRUNER, Gutxieneko informatika, KLIK, Web orria, POWER POINT, "SPC" hizkuntza orde-nagailuaren bidez, IPUINAK BIZI-BIZIAN, Alexander teknika, PLASTIKA ADIERAZPENA, Euskal dantzak, ANTZERKI KLOWNa, Antzerkia nerabezaroan, EUSKARAZ ARITZEKO KAN-TAK ETA JOLASAK, Jolas kooperatiboak, EUSKAL SOIN JARDUERAK (ESJ), Psikomotrizitatea, HAURRENTZAKO MASAJEA, Musika hezkuntza hastapenak herri kulture-tan, AHOZKO NARRAZIOTIK ABIATUTA POZIK ETA GUSTURA IRAKUTZERA, Literatur txo-koa, IDAZKERA TXARRA? EZ, ESKERRIK ASKO, Adimena berezko duten haurrak, MATE-MATIKAREN HISTORIA ETA FILOSOFIA, Heriotza heziketan, GOGO ERABILKETA, Ahozko hizkuntzako trebaketa prebentiboa, HISTORIAREN TXOKOA, Jorge Oteiza, ESKOLA BARA-TZA EKOLOGIKOA, Zinema Eskolan, GAUR EGUNGO ESKOLA SISTEMA ETA IRAKASLE-AREN ROL ALDAKETA, Ikaste komunitateak, EUSKAL KULTURA TRADIZIONALA, Hezkuntza aniztasunean, HEZIKETA ESPERIENTZIALA, Hezkuntza ebaluazioa.